TXIRRINDULARITZA: GORLAKO IGOERA JOKATUKO DA DOMEKAN /11

Goienkaria


EGUAZTENA • 2005.03.23

V. urtea • 193. zenbakia • DOAN BANATZEKOA



Goienka2a
Euskal Herriko Gazte Mugimenduaren Topaketak Markinan

MIGUEL DE LA QUADRA-SALCEDO
"Tradizio barik, tribu barik, sustrai barik, nazio barik, gizakiok ez gara ezer" /6-7



FELIPE URIARTE
"Aconcaguara lehenengo aldiz 1977an joan ginenetik, 35 espedizio egin ditugu" /10-11

Eguraldi epela Aste Santuan, baina Pazko astean okerrera

Gogorra izan da aurtengo negua. Tenperaturak ez dira asko jaitsi (baxuena, -8º, Arantzazun), baina elurra izan da nagusi otsailean eta martxoan. Otsailaren 13an hasi eta aterralditxo batzuk tartekatu arren, 24 egunez egin zuen elurra. Arantzazun 274 elur litro bota zituen egun haietan.

Baina elurtea joan, eta eguraldi epelarekin egin diogu harrera udaberriari. Hala ere, tarte laburrerako izango da eguraldi hau, adituen ustez. Hala esan digu Pello Zabala eguraldi iragarleak. Tenporek orain dela hilabete iragarri zuten moduan, martxoa epel antzean joan da eta hego haizea izan da nagusi. Baina, apiriletik aurrera, udaberria freskoa izango da uda arte. Hortaz, Aste Santua nahiko epela izango dugu, baina Pazko astean okerrera egingo du eta tenperatura freskoagoak izango ditugu. /5

ASTEKO GAIA: MU-KO BI IKASLEK EGIN DUTE PROIEKTUA

Etxeko olioa batzeko sistema iraultzailea

Orain dela urtebete, Arrasateko Udaleko Ingurumen Sailak eta MUk hitzarmena sinatu zuten, olio bilketa hobetzeko proiektua egiteko. MUko bi ikaslek sistema berria asmatu dute, munduan inon erabili ez dena, eta Arrasateko Udala asmakizuna patentatzeko prozeduran dabil.

Ontzien prototipoa eginda dute, eta ontziak botatzeko edukiontziak ere asmatu dituzte. Beste bi ikaslek proiektua garatu beharko dute, eta dagoeneko onartu dute poteak ekoiztea. Arrasaten egingo dute proba pilotua 2007an, eta hortik aurrera zabaldu egingo dute. /2-3

- *Nazioartean bilketa horrek dituen arazoak saihesten ditu*
- *Arrasaten egingo dute asmakizunaren proba pilotua 2007an*



IKER BARANDIARAN

Sistema hori Jon Alvarez (argazkian, ontziaren prototipoarekin) eta Iker Jauregi ikasleek asmatu dute.

Datorren astean ez da GOIENKARIArik argitaratuko

Aste Santuko oporrak direla-eta, datorren astean, hilaren 1ean, ez da argitaratuko GOIENKARIA. *Asteleheneko Goienkaria* ere ez da argitaratuko datorren astelehenean. Hurrengoak honako egunotan banatuko dira: apirilaren 4an, astelehenekoa, eta 8an, barikukoa.

BERGARA

'Bixkai'-ren aldeko mozioa onartu du udalbatzak

Iñaki Arietaleanizbeaskoa *Bixkai*-ren aldeko mozioa onartu du udalbatzak. *Bixkai* zapatuan atxilotu zuten Frantzian. Udalak elkartasuna adierazten die senideei momentu latz hauetan. Era berean, Udala Frantziako zenbait instituziorekin harremanetan jarriko da Iñakiren egoeraren berri jakin eta haren eskubideak errespetatuak izateko eskatuz. /7



DEBAGOIENA/4-5 • IRITZIA/8 • HERRIZ HERRI/9 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Eguaztena / 2005eko martxoaren 23a

MUk olioa batzeko sistema asmatu du

Arrasateko Udaleko Ingurumen Sailak horren gaineko proiektua egiteko eskatu zion

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Udaleko Ingurumen Saila arduratuta zegoen Mankomunitateko olio bilketa sisteman hobekuntzak egiteko premia zegoelako. Ahalik eta olio gutxien galtzeko eta bilketa eraginkorragoa izateko ontzi bat diseinatzeko premia ikusi zuten. Udala MUrekin harremanetan jarri zen, eta 2004ko martxoan hitzarmena egin zuten proiektu hori egiteko.

Azkeneko urteotan olio bilketa hilean bi egunetan egiten dute, goizez. Herritarrek etxeko olioa Ecogras enpresako furgoneta batera eraman behar izaten dute. Proiektua egin duten Jon Alvarez eta Iker Jauregi ikasleek bi arazo nagusi ikusi zioten prozedura horri: batetik, oso egutegi eta ordutegi mugatua duela; eta bestetik, ontzi egokirik baliatu ez dutenez, bidean olioa gal daiteke, eta olioa hoztu ahala, ezin izaten da ontzitik guztia atera.

BILKETA SISTEMA OSOA AZTERTU

Bi ikasleek bilketa sistema osoa aztertu zuten, eta konturatu ziren ontzia diseinatu arren, beste hainbat arazok indarrean jarraituko zutela. Horrez gain, euren ustetan, ekimena eraginkorra izateko eta emaitza onak jasotzeko, ezinbestekoa da herritarrek edozein egun eta ordutan olioa botatzeko aukera izatea.

Herritarrei aukera hori eman ahal izateko, ondorioztatu zuten edukiontziak jarri beharko zituztela. Hortik aurrera, edukiontzietara botatzen dena kontrolaezina denez, hori saihesteko probak egin zituzten. Debagoienean eta beste herrialde batzuetan ere arazoak izan dituzte, herritarrek, etxeko olioaz gain, autoetakoa ere botatzen dutelako. Isurkari horiek nahastuz gero, zeharo zaildu egiten da hortik biodiesela ateratzeko prozedura, eta makinak ere hondatzen ditu. Ezinbestekoa da bi likido horiek bereiztea, birziklapen lan guzti horren funtzioa betetzeko.

ONTZIEN EDUKIONTZIA

Puntu horretan, isurkariak kontrolatu ahal izateko modua asmatu zuten. "Ez zen erraza, eta bilketa horiek egiten dabiltzan enpresak bisitatu genituen, eta atzerrian zer konponbide ematen dioten galdetu behar izan genuen", azpimarratu zuten.

Esan digutenez, Espainian eta, oro har, Europan dauden bilketa sistemak bi motatakoak dira: herritarrek furgoneta edo autobus batera olioa eraman behar izaten dutenak, han jasotako olioa eskuz bereizten dute; eta norberak edukiontzian hondakina isurtzen duena. "Ez dugu ikusi metodorik arazo osoari konponbidea ematen dionik. Bata oso murriztua da eta eskuz lan egin behar da, eta bestean birziklapen prozedura guztia bertan behera geratzeko arrisku handia dago".

Hurrengo erabakia izan zen edukiontzietara hermetikoki itxitako ontziak botatzea. Hala, ez zen oliorik nahastuko. Eta isurkiak identifikatzeko –eta bide batez ez nahasteko– argazki bidezko sistema bat asmatu dute. Dagoeneko bazuten planteamendua.

Behin prozedura guztia kontuan hartuta eta sistema berria diseinatuta, ontzia egiten hasi ziren.

"Ontzia erabilgarria izatea zen garrantzitsuena. Potea sukaldean eskura eduki behar izaten denez, litro bateko bolumena eman diogu, ez genuen handiegia egin gura. Horrez gain, garrantzia handia eman diogu horri erraz heldu ahal izateari. Hori bermatzeko, forma hirukia eman diogu eta, horrez gain, azala zimurra egin dugu, braille inskripzioez baliatuta. Ondo heltzeaz gain, itsuek eta ikusmen urria dutenek ere erabili ahal izango dute", azaldu zuen Iker Jauregik.

BIRZIKLAPENAREN GILTZA, ESKURA


Zuk daukazu birziklapenaren giltza leloa asmatu dute MUko bi ikasle horiek eta proiektuko zuzentzaile Felix Zugastik. Oliopoteen tapa edukiontziak zabaltzeko giltza ere izango da. Modu horretan baliatu dute bakarrik

Edukiontzi berrien funtzionamendua

1. Olio-potea ontziratzea
Potea etxean bete beharko da, eta ezin izango da etxeko olioa ez den beste isurkirik bota. Olio-potearen tapa bera edukiontzia zabaltzeko giltza ere izango da. Horrela ezingo du edozeinek edukiontzira edozer bota. Edukiontziak pote osoa irentsi egingo du, eta erabiltzaileak ez du ontziaren edukia hustu behar izango.

2. Potea, depositora
Enpresa bateko langileek edukiontzi barruko poteak jasoko dituzte lur azpiko depositotik, birziklatzeko eta horrela biodiesela egiteko.

3. Beste ontzi bat, bueltan
Olioz betetako potea edukiontzian sartzerakoan, edukiontzitik bertatik garbi eta hutsik dagoen beste pote bat aterako da erabiltzaileak etxera eraman dezan.



ORAIN ARTE, BILKETA MURRIZTUA

Gizartea zerbitzura egokitzeak ez du emaitza onik ematen

Bilketa sistemaren sortzaile Jon Alvarez eta Iker Jauregik oso argi dute orain arteko sistema ez dela eraginkorra. "Herritar askok ezin dute hileko bi egun horietan eta ordu batzuetan olioa eraman, eta horregatik oso olio gutxi jasotzen dute".

Arazo horretaz jabetu zirenean erabaki zuten ontzia diseinatzeaz haratago jo behar zutela. Edukiontziak ziren aukera aproposena, baina horretarako beste arazo batzuk saihestu behar izan dituzte.

ISURITAKO OLIOAREN KONTROLA

Etxeko eta autoetako olioa nahasteak eragindako kalteak

Ikerketa egin duten lagunek jakin dute orain arte ibarrean egiten dituzten bilketetan eta baita ere olioa batzeko edukiontziak jarri dituzten lekuetan, etxeko eta autoetako olioak askotan nahastu izan dituztela. Bi olio mota horiek nahastuz gero, oso zaila da hori biodiesela bihurtzea; eta are gehiago, birziklapen-prozedura hori egiten duten makinak izorratu egiten dira. Horregatik, argi izan dute isuritako olioa zelanbait kontrolatu beharra dagoela.

OLIOA, HONDAKIN ARRISKUTSUA

Biodiesela, ekologikoa eta motorrendako ere onuragarria


Etxeko olioa hondakin arriskutsua da: hodiak hondatu egiten ditu; araztegietan kalte handiak eragiten ditu; eta ibaietan bizi diren landare eta animalien bizitza arriskuan jartzen du. Kontuan hartzekoa da.

Jasotako olioa, tratamendu baten bitartez, biodiesel bihurtzen dute. Biodiesela diesela baino askoz ekologikoagoa da, eta ibilgailuen motorrei onura handiagoa egiten die. Hainbat herritan garraio publikoak eta partikularrek erabiltzen dute.

ONTZIAK, BRAILLEAN IDATZITA

Ontzien erabilgarritasunak ezinbestekoa izan behar du

Ontzia diseinatzeko orduan, argi zuten garrantzitsuena zela erabilgarritasuna bermatzea. Sukaldean edukitzeko tamaina ertaineko potea asmatu dute –litro bateko edukiera du–. Erraz heltzeko modukoa izateko, hiruki forma eman diote. Are gehiago, itsuek edo ikusmen urria dutenek ere erabil dezaten braillean idatzita dago. Hala, herritar horiek erabiltzea bermatzeaz gain, braille inskripzioari esker, potearen azala zimurragoa da, hobeto heltzeko.



GOIENKARIA

2007an, Arrasaten, proba egin arte, ohiko bilketa sistemak jarraituko du.

FELIX ZUGASTI / OLIO BILKETA SISTEMAREN PROIEKTUKO ZUZENTZAILEA

"Arazoak kontuan hartuta, bilketa aldatzea erabaki dugu"

Jon Alvarez eta Iker Jauregi ikasleak izan dira olio bilketa sistema asmatu dutenak. Eta MUko irakasle Felix Zugasti izan da proiektua zuzentzeaz eta kudeatzeaz arduratu dena.



Zer erronka jarri zizuen Udaleko Ingurumen Sailak?

2004ko martxoan Arrasateko Udaleko Ingurumen Saila MUrekin harremanetan jarri zen, olio bilketa egiteko ontzi bat diseinatzeko. Hitzarmena sinatu zuten, eta Unibertsitateko Mekanika Sailak hartu zuen ardura hori. Une hartan ikasketak bukatuta zituzten bi lagun aukeratu zituzten. Ezinbestekoa zen bi lagun horiek Diseinu Industrialeko ikasketak egitea izatea. Jon Alvarez Biurrarena eta Iker Jauregi Miranda aukeratu zituzten, eta neu euren lana zuzentzen eta errazten ibili naiz.

Zein fase egin dituzue sorkuntza lan horren barruan?

Lehenik eta behin, Jonek eta Ikerrek olioaren propietateak aztertu dituzte; olioaren birziklapenaren fase guztiak gainbegiratu dituzte, etxeetatik Ecogras enpresara arte; olioa biodiesel bihurtzeko prozedura ere izan dute aztergai; eta olioak nahasteak zelako kalteak ekar dezakeen ere jakin dute beste gauza askoren artean.

Behin hori guztia aztertuta, konturatu gara arazoaren muina ez dagoela ontzietan. Horregatik, ontzi bat egitetik sistema osoa diseinatzera jauzia egin dugu. Bi arazo nagusi ikusi ditugu: batetik, gaur egun bilketa orduak oso murritzak direla, eta horregatik zerbitzu hori ez dagoela gizarteari egokituta. Zerbitzu ona emateko eta kostuak ez handitzeko, erabaki dugu aproposena dela edukiontziak jartzea. Baina edukiontzien arazoa da horretara botatzen dena kontrolaezina dela. Horregatik, ontziendako edukiontzia egitea erabaki dugu; olioa bota beharrean, hermetikoki itxita dauden ontziak botatzea.

Horrek egitasmoa erabat aldatu du, ezta?

"Ezinbestekoa da zerbitzua handitzea, eta bide bakarra dira ontziendako edukiontziak"

"Zailena izan da bilketan esku hartzen duten elementu guztiak kontuan hartzea"

Bai. Ontzi bat diseinatzeko proiektutik olio bilketa sistema osoa diseinatzera pasa gara. Gauza bat bestea barik ez zen nahikoa izango. Jonek eta Ikerrek, urte baten, ontzia diseinatzeaz gain, sistema osoak zelan funtzionatu beharko lukeen asmatu dute. Orain, udalarekin beste hitzarmen bat sinatu dugu beste bi ikaslek urte batez edukiontziaren diseinua bukatu eta proiektua bera buka dezaten. Jonek eta Ikerrek egindako lana itzela izan da, baina oraindik xehetasun asko daude egitear.

Zein izan da zure eginkizuna proiektuan? Eta udalarena?

Askotan tutore izena erabili ohi da, baina tutore baino gehiago zuzentzaile izena erabiliko nuke. Ahal izan dudan gauza guztietan laguntza eman diet, eta udalarekin, olio bilketako prozeduran esku hartzen duten enpresa guztiekin eta bestelako erakundeekin kudeaketa-lanak egin ditut.

Udaleko Ingurumen Sailari dagokionez, oso gustura gelditu gara egin diguten harrerarekin. Egitasmoa gertutik jarraitu dute, eskatu diegun guztietan batzarrak egin ditugu eta gure proposamenak uneoro aintzat hartu dituzte.

Zer izan da zailena?

Olio bilketan lan egiten duten eta horretarako behar diren produktuak ekoizten dituzten enpresa, erakunde eta lagun askok esku hartzen dutela, eta arazoari konponbidea emateko pauso guztiak aztertu behar izan ditugula. Gauza asko, larregi, hartu behar dira izan kontuan.

Zer-nolako sentsazioa daukazue orain, sistema asmatu ondoren?

Herritarrei eta ingurumenari mesede egingo dion sistema asmatzeak poz handia ematen du. Egindako ordu guztiak ahaztu egiten ditugu orain.

"Arrasaten egingo dute proba pilotua 2007an. Hortik aurrera, zabaldu egingo dute"

"Beste hitzarmen bat sinatu dute proiektua bukatzeko. Beste bi ikasle jarri dira horretan"

pote horiek dituztenek edukiontziak erabili ahal izatea. Hala saihestuko dute beste edozer botatzea eta isurkiak nahastea.

Ontziak polietilenoz egingo dituzte, eta izango duten formarekin isurkia, hoztu arren, bilketa-enpresan husteko erraztasunak izango dituzte.

Potearen taparekin edukiontzia zabaltzerakoan, barrura sartu, eta beheko aldetik beste pote bat irtengo da, hutsik eta garbi egongo dena.

ONTZIAREN PROTOTIPOA EGINDA

Potearen prototipoa diseinatuta dago, eta edukiontziaren zirriborroa ere eginda dute. Lan handia egin dute Jon eta Iker ikasleek eta Felix Zugasti irakasleak. Jonek eta Ikerrek bukatu dute proiektua, baina egitasmoa ez dago bukatuta.

BESTE BI IKASLE, URTEBETEZ

Astelehenean, Arrasateko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen 18.000 pote eta tapa ekoiztea –etxeetan banatuko dituzte–, eta Arrasaten bost edukiontzi jartzeko egitasmoa onartzea. Horrez gain, MUrekin hitzarmena egin zuten, beste bi ikaslek urtebeteko jarduna egin dezaten zortzi ordutara, eta Felix Zugastik astean sei ordu bete ditzan zeregin horretan. 92.300 euroko aurrekontua dute.

UDALAK, ASMAKIZUNA PATENTATU

Arrasateko Udalak MUko ikasleek asmatutako bilketa sistema patentatzeko pausoak eman ditu. Horrez gain, proiektuaren bultzatzaileek uste dute 2007. urte erdialderako edukiontziak eta ontziak diseinatuta eta ekoiztuta egon daitezkeela. Hala balitz, Arrasaten egingo dute sistemaren proba. Bost edukiontzi jarriko dituzte, honako lekuetan: Erguinen, San Andresen, erdialdean, Zigorrolan eta Santa Teresan. Lur gainean jarriko dituzte, eta emaitza onak emango balitu, etorkizunean lur azpian jarriko lituzkete Arrasaten, eta beste hainbat herritara zabalduko litzateke ekimena.

ERAKUNDEEN LAGUNTZA ETA INTERESA

Proiektuaz jabetu diren erakunde guztiek oso begi onez ikusi dute proiektua. Debagoieneko Mankomunitatea Arrasateko emaitzen zain dago; Aldundiak diruz lagundu gura du; eta IHOBEk laguntza eskaini du.

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

OÑATE
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045

SEIN
grupoetaldea

Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

Langile okupatuentzako prestakuntza finantziatuak %100-ean

- MS Project
- Web orrien diseinua
- Komunikazio teknikak
- Lidergoa
- Bileren zuzendaritza
- Stress-aren denbora eta kontrol kudeaketa
- Lan arriskuen prebentzioa
- Ingurugiro talkaren ebaluaketa
- Irakaskuntzako langintza osasuna (ahotsaren hezkuntza)

AKADEMIA
BASTIDA
Info: 943 79 35 33
formacioncontinuabego@bastida.es



ARTXIBOA

Egubakoitzean, 18:00etako mezaren ondoren, prozesioa egingo dute Elgetako kaleetan.

Aste Santuan elizkizun ugari izango ditugu Debagoieneko elizetan

Hausnarketa eta penitentzia sakramentuak ere egingo dituzte

AINTZANE IRIZAR

Debagoieneko elizek ordutegi berezia izango dute Aste Santuan. Elizkizun eta ospakizun ugari izango dugu egunotan. Mezez gain, hausnarketa eta penitentzia sakramentuak ere izango ditugu.

Elizarendako eta sinesdunendako urteko garairik garrantzitsuenetakoa dugu Aste Santua; horrela, ospakizun eta elizkizun ugari izango dituzte.

Arrasateko elizetan, esaterako, Pazko Hirurrenean, elizkizun ugari izango dute. Bihar, Eguen Santua, honako elizkizunak izango dituzte: 17:00etan La Merced eta Iturbideko elizetan; 18:00etan, San Joan Bataiatzailearen Parrokian, San Frantziskon eta San Andresen; 18:30ean, Santa Teresan; 19:00etan, Kontzeptzionisten komentuan eta 20:00etan, Uribarrin.

Egubakoitzean, Gurutz Bidea egingo dute, 08:00etan, Portaloitik Santa Barbarara, eta 11:00etan, Uribarrin eta Santa Teresan. San Joan Bataiatzailearen parrokian, 11:00etan, adiskidetze sakramentua izango dute. Arratsaldean, berriz, elizkizun ugari egongo da: 16:00etan, Iturbiden; 17:00etan, San Joan Bataiatzailearen parrokian, Santa Teresan, San Frantziskon, San Andresen eta Uribarrin; 18:00etan, Kontzeptzionisten komentuan eta 18:30ean, La Merceden.

Zapatuan, 10:00etan, San Andresen Gorespen elizkizuna egingo dute; gainerakoetan, gauean izango dituzte ospakizunak.

ELGETAN, PROZESIOA

Elgetako Andre Mariaren Jasokundeko parrokian, hainbat elizkizun izango dira egunotan; bihar, eguena, 19:00etan izango dute meza. Egubakoitzean, 09:00etan, Gurutz Bidea egingo dute; 18:00etan, meza, eta ondoren, prozesioa. Zapatuan, berriz, 22:00etan egingo dute elizkizuna, eta ondoren, txokolate jana.

Aretxabaletako parrokiako lokalean, bihar, eguena, bakearen gaineko hausnarketa egiteko elkartuko dira, 16:00etatik 17:30era. Eskoriatzan, berriz, 11:00etatik 12:00etara, bakarkako adiskidetze sakramentua ospatuko dute.

DEBAGOIENEAN LABUR

Eskoriatzako gazte bat atxilotu dute Bilbon ertzainen furgoneta bati eraso egiteagatik

Astelehenean atxilotu zuen Ertzaintzak Bilbon G.A.R. 26 urteko gazte eskoriatzarra. Desordena publikoa eta ertzainei eginiko erasoa leporatu diote. Herrizaingo Sailaren arabera, Ertzaintzaren furgoneta bati eraso egin zioten hainbat gaztek astelehen goizaldean eta eraso hauetan parte hartzea leporatzen diote eskoriatzarrari. Hainbat lekukok, ordea, dio ertzainek probokatu eta iraindu zituztela, Korrika amaiera jaia ospatzen zebiltzan gazteak. Basurtuko ospitalera eraman zuten G.A.R. gaztea Bilboko Alde Zaharrean izandako istiluetan Ertzaintzak botatako gomazko pilota batek zauritu zuelako. Eskoriatzarrarekin batera beste lau pertsona atxilotu zituzten.

Topaguneak batzar orokorra egin du eta batzordekide berriak aukeratu ditu

Aurreko zapatuan, hilak 19, egin zuen urteko batzar orokorra Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak, Durangon. Hantxe, zuzendaritza-batzorde berria izendatu zuten; tartean, lehendakariorde berria aukeratu zuten, Azkoitiko Maxixatzen elkarteko Karmen Irizar, hain zuzen ere. Bestalde, Topagunean federatu diren elkarte berriak aurkeztu zituzten; honakoak dira elkarteok: Belaiki elkartea (Baranbio, Araba); Trolebu (Aulesti, Bizkaia); Illati (Idiazabal, Gipuzkoa); Aizpea (Irurtzun, Nafarroa); Karrikiri (Iruñea, Nafarroa) eta Mailope elkartea, (Araitz-Larraun, Nafarroa). Azkenik, Topaguneak Soziolinguistika Klusterrean eta Tokiko euskarazko telebisten elkartean parte hartzeko erabakia berretsi zuten.

Elgetako Aralar: "EAJ-EAk ez du bete babes ofizialeko etxeak eraikitzen hasteko epea"

Otsailaren 8an, Hirigintzako batzordeburu Joseba Muxikak hilabete eta erdiko epea eman zuen Torrealdeako babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen hasteko. Epe horren ostean, Torrealdeako lurretan makina eta langilerik ez dagoenez, Aralarrek salatu du esandakoa ez dutela bete. Ingurune horretan babes ofizialeko etxeez gain, libreak ere egin behar dituzte eta etxe eraikitzaileak bat ez datozelako sortu dira atzerapenak. Ondorioz, proiektua berraztertzea pentsatu dute. Horrek atzerapen handiagoa ez ezik kostuak handitzea ere ekarriko duela esan du Aralarrek.

Mendekosteetako bakailao lehiaketa antolatzeko batzarra, apirilaren 6an

Urtero bezala, Bergarako Mendekoste jaietan bakailao lehiaketa antolatuko dute aurten; maiatzaren 14an izango da hori. Antolaketari dagokionez, baina, aldaketak egitea aurrez ikusten dute. Lehiaketa horretan berrikuntzak egiteko asmoarekin, herriko elkarte guztiei eta horretarako interesa duten guztiei, lehiaketa hori antolatzen parte hartzeko deia egin die Udaleko Kultura eta Jai batzordeak. Apirilaren 6an, eguaztena, 19:00etan, batzarra egingo dute Kultura Etxean.

Ezker abertzale zibila eta zabala helburu

Sinatzaileak

Baleren Bakaikoa (ekonomian katedraduna)
Amaia Zubiria (kantaria)
Ritxar Irazusta (ABko kidea)
Bittor Kapanaga (idazlea)
J.L. Alvarez Enparantza 'Txillardegi'
Jabier Muguruza (musikaria)
Kike Amonarriz (soziolinguista)
Jasone Osoro (idazlea)
Emilio Lopez Adan 'Beltza'
Joan Mari Irigoien (idazlea)
Patxi Zubizarreta (idazlea)
Pello Zabala (frantziskotarra)
Pili Kaltzada (kazetaria)
Jon Ander Ubeda (musikaria)
Bingen Mendizabal (musikaria)
Mikel Asurmendi (kazetaria)
Inaki Irazabalbeitia (zientzia dibulgatzailea)
Iñaki Mendiguren (itzultzailea)
Sagrario Aleman (IKAko irakaslea)
Iñaki Albistur 'Zapa'
Xabier Añua (abokatua)
Marian Arin (EHUko irakaslea)
Andoni Arratibel (kazetaria)
Josi Basterretxea (EHUko irakaslea)
Arantza Campos (EHUko irakaslea)
Mikel De la Fuente (EHUko irakaslea)
Ander Erzilla (Musikaria)
Mikel Goenaga (Komite Internazionalistak)
Iñigo Goikoetxeandia, "Wanka" (Selektah K.)
Jesus Mari Larrazabal (logikari eta irakaslea)
Amaia Miangolarra (irakaslea)
Andoni Mujika **(komunikazio teknikaria)**
Joseba Ossa (itzultzailea)
Timoteo Ozaeta, "Jalas" (Potatoko musikaria)
Edu Zelaieta (idazlea)
Iñaki Zubeldia (idazlea eta editorea)

Ezker Abertzale zibil, zabal eta anitzaren alde egiten dugu. Bide politikoetatik soilik jardungo duen ezker abertzalea nahi dugu, guretzat eskatzen ditugun eskubideak inori ukatu nahi ez dizkiogulako. Ezkerreko abertzale guztiak bilduko dituen espazio politikoa eraikitzeko nahiarekin bat egiten dugu, erabakiak era demokratikoan behetik gora hartzen, ezkerreko beste indarrekin elkartzen, eta autonomia osoz jokatzen dakien eragile politikoa bilatzen dugulako.

Bi oinarri horien gainean bakarrik lortuko dugu ezkerreko abertzaleok euskal politikagintzan eraginkorrak izatea, eta erdiko eta eskuineko indarren nagusitasunari aurre egiteko gai den alternatiba eraikitzea. Horrela erakutsi ahal izango dugu herri mugimenduen nahiak bideratu eta bete daitezkeela, beti ere gizarte justuagoa eta berdinzaleagoa, demokratikoagoa eta partehartzaileagoa helburu ipinita, eta lan eta gizarte eskubideak, autogestioa, emakumearen burujabetza osoa, garapen jasangarria eta herrien arteko elkartasuna oinarri hartuta.

Horretarako, garbi dugu beharrezkoa dela ARALAR legebiltzarrean egotea, pentsatzen dugulako handik ere ezker abertzale zibil, zabal eta eraldatzailearen hazia ereiten jarraituko duela; ezker abertzale politikoaren bermea delako, etorkizuneko ezker abertzalea oinarri horietan finkatuko den berme. Nabarmena baita atean dagoen aro berriari bide berriak zabaldu behar zaizkiola.

aralar



ARTXIBOA

Iaz, Bergarako Udalak idatzia irakurri zuen, Aberri Eguna gogora ekartzeko.

Hitzordu ugari, domekan Aberri Eguna dela-eta

Alderdiak eta sindikatuak, nor bere kabuz

UBANE MADERA

Bizkaia aukeratu dute alderdi gehienek egun hori ospatzeko: EAJk Bilbo, Batasunak Hendaia, EAk Gernika eta Aralarrek Durango. Horrez gainera, manifestazioa deitu du Batasunak eta sinadura-ekitaldia Nazio Eztabaidaguneak.

Azken urteotan moduan, Gernikan ospatuko du Eusko Alkartasunak Aberri Eguna. Eguerdirako egin dute hitzordua, 13:00etarako, baina bazkal ostera arte ez dute ekitaldi politikorik egingo. Hain zuzen ere, 17:00etan hasiko da mitina, Begoña Erraztiren eta Unai Ziarretaren eskutik. Karlos Garaikoetxea ere izango dela iragarri digute, Santanapeko frontoian. Ibarretik hara joateko autobusa 11:00etan da, Arrasaten.

Batasunari dagokionez, Udalbiltzak Hendaian egingo duen ekitaldian parte hartzeko deia egin die militanteei. 12:30ean hasiko da ekitaldi nagusia. Horrez gainera, Batasuna legez kanporatu izana salatzeko manifestazioa ere antolatu dute. Hori Iruñean izango da, 17:00etan aterako da, Golem zinemetatik. *Orain bakea, orain herria* leloa erabiliko dute.

EAJk, berriz, Bilbo aukeratu du domekarako. Orain arte, han ospatu dute Aberri Eguna, Erakustazokan. Aurten, aldiz, Plaza Berrian ospatzea erabaki du EBBk. Jakinarazi digutenez, goizeko lehen orduetatik izango dira animazio taldeak alde zaharrean, eta 12:00etan egingo dute ekitaldi politikoa, Juan Jose Ibarretxeren eta Josu Jon Imazen eskutik.

Eta Aralarrek, Durango aukeratu du, hura bonbardatu zuteneko bezpera da-eta. Andra Mari elizaren aterpean egingo dute ekitaldi nagusia, 12:30ean. Zerrendaburuek parte hartuko dute: Joseba Azkarragak (Bizkaia), Aintzane Ezenarrok (Gipuzkoa) eta Iñaki Aldekoak (Araba). Horrez gainera, ABk Iparralden egingo duen ekitaldira ordezkariak bidaliko dituzte. *Erabaki ezkerretik independentzia* leloa aukeratu dute.

Sindikatuen gaineko aipamena eginez, berriz, LABek deitu du Udalbiltzak antolatutako jaian parte hartzeko; ELAk, berriz, militanteei askatasuna emango die nahi duten ospakizunera joateko.

Eztabaidagunearen sinadura ekitaldia egingo dute Irunen; ordezkariak bidaliko dituzte alderdiek-eta

Eguraldi epela Aste Santuan, baina Pazko astean okerrera egingo du

Udaberrian eguraldi freskoa eta bustia izango da, adituen esanetan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Tenporak orain dela hilabete izan ziren. Iragarpenen arabera udaberria freskoa eta bustia izango da, eta hala esan digu Pello Zabalak ere. Aste Santuko oporraldian izango den eguraldiari buruz galdetuta epela izango dela jakinarazi du.



IRATI AGIRREAZALDEGI

Egunotako eguraldiaz gozatu dugu denok. Eguraldi ona, ordea, ez dugu luzaroan izango.

Gogorra izan da aurtengo negua. Tenperaturak ez dira asko jaitsi (baxuena -8º Arantzazun), baina elurra izan da nagusi otsailean eta martxoan. Otsailaren 13an hasi eta aterralditxo batzuk tartekatu arren, 24 egunez egin zuen elurra. Arantzazun 274 elur litro bota zituen egun horietan.

Baina elurtea joan eta eguraldi epelarekin egin diogu harrera udaberriari. Hala ere, tarte laburrerako izango da eguraldi hau, adituen ustez.

Hala esan digu Pello Zabala eguraldi iragarleak. Tenporek orain dela hilabete iragarri zuten bezala, martxoa epel antzean joan da eta hego haizea izan da nagusi. "Alda haizea ere deitzen zaio, ordea, hego haizeari, eta aste hau airoso joango den arren, eguraldia bihurritu egingo da egubakoitzetik aurrera. Ilargi berria izango da egubakoitzean, eta hortik aurrera fidagaitza izango da eguraldia". Pazko astean, iparmendebaleko haizea sartuko da eta horrekin batera eguraldi freskoa eta tarteka euria ere egingo du.

UDABERRI FRESKOA

Oporraldiaren ostean ere, bide beretik jarraituko du eguraldiak. "Maiatzean zertxobait bigunduko den arren, egun hauetakoa bezalako eguraldi epelik ez da izango. Lainoak izango dira nagusi eta tarteka baita euria ere. Uda bitartean itsasoko haizea izango da gurean, eta aurtengo udaberria freskoa eta bustia izango da gurean", esan digu Pello zabalak.



0000 km
Mondeo
C-Max
Fiesta
Hauxe da aukera!
MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es
Ford
gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak

GOIENKARIA
Eguaztena / 2005eko martxoaren 23a

Miguel de la Quadra-Salcedo

RUTA QUETZAL EKIMENEKO ZUZENDARIA

“Tradizio barik, tribu barik, sustrai barik, nazio barik, gizakiok ez gara ezer”



Amazonan eta Perun ibili eta gero, Ruta Quetzal-eko 400 gazte Euskal Herrira etorriko dira uztailean, tartean Oñatira. Hori guztia prestatzeko, Arantzazun izan zen joan den egubakoitzean Miguel de la Quadra-Salcedo. Aurtengo edizioaren, eta Oñatin ikusiko dutenaren gainean berba egiteaz gain, bere bizitzako hainbat pasarteren gainbegiratua ere egin zigun. Gizon horrek bizi izan duena ikusita, erraza da txiki sentitzea.

XABIER URTZELAI

Euskal Herrira etorriko zarete aurtengo edizioan; tartean, Oñatira.

Bai. Arabatik sartuko gara Euskal Herrira eta Oñati eta bertako inguruak ezagutzeko egingo dugun geldialdia izango da Gipuzkoan egingo dugun lehena. Inguruotan asko dago ikusteko eta ikasteko.

Zer ikasiko dute aurtengo Ruta Quetzal espedizioan izango diren gazteek?

Amazonan hasiko dugu aurtengo Ruta Quetzal. Hango flora eta fauna aztertzeaz gain, ikusiko dugu hangoak zelan hasi ziren kakaoa erabiltzen... Izan ere, eurak izan ziren lehenak kakaoa kontsumitzen, eta denborarekin aztekek ekin zioten kakaoa lantzeari. Horrekin batera, ikusiko dugu zelan erabiltzen duten ura Amazonan.

Handik Perura egingo dugu, Cuzcora, hain zuzen. Altuerako artzaintza nolakoa den ikusi, eta donostiar baten historiaren berri ere izango dugu, Catalina de Erausorena. 17 urte egin zituen Txileko gerran, eta heriotza zigorra ezarri ziotenean Alferezko mojetako komentuan babestu zen. Eta egun, komentu horretako Ama Nagusiak Oñatikoak dira.

Euskal Herrian, nondik nora ibiliko zarete?

San Adrianetik oinez iritsiko gara Urbiara, eta Aizkorrira igo eta gero, Arantzazuraino jaitsiko gara. Bertan, Artzain Eskola bisitatuko dugu, eta Oñatira egingo dugu gero, txokolatea nola egiten duten ikustera. Oñatitik Zumarragara, Azpeitira eta Legazpira joango gara, burdin bidea jarraituta; eta Donostian eta Mutrikun geldialdia eginez, Bilbon amaituko dugu ibilaldia.

Ameriketan eta Euskal Herrian ikusiko duzuenak erlazio zuzena dauka.

Bai. Lehen ere esan dugu Amazonan kakaoa nola lantzen zuten ikusiko dugula, eta Oñatin ere beste horrenbeste egingo dugu. Kontuan izan, Oñati dela kakaoaren historian Europako toki garrantzitsuenetakoa, garai baten, herri horretan 52 lekutan egiten zuten-eta txokolatea. Alde horretatik, Compañia Guipuzcoana izan zena ezagutuko dugu.

Horrekin batera, Perun altuerako artzaintza nola egiten duten ikusiko dute gazteek, eta Arantzazun hemengo artzaintzaren berri izango dute. Egia esateko, Peruko txakurrak ez daude hemen bezain ondo hezita. Hala, meatzaritza izango da beste ardatz bat: Perun, meatzari euskaldunek urrea eta zilarra lantzen zuten, eta hemen burdina landu izan dute. Horregatik izango gara Zumarragan eta Legazpin; hala, burdinoletatik Txillida-Lekura egingo dugu, burdinari ematen zaion erabilpenean sakontzeko.

Mutrikun, Trafalgarko batailan hil zuten Txurruka marinelaren berri emango digute, eta handik Nerbioi ibaian gora eginda, Bilboraino iritsiko gara, Guggenheim museoa ikustera. Azteken gaineko erakusketa ederra dago han, eta hori bisitatu gura dugu. Bilbon amaituko dugu Euskal Herriko egonaldia.

Itzul gaitezen Arantzazura, bertan egingo duzue-eta lehenengo geldialdia.

Bai; gainera, irailean munduko artzainen topaketa egingo dute Arantzazun, eta Ruta Quetzalen oihartzuna eman gura diogu horri. Zorionez, leku askotako kazetariak etorriko dira gurekin, eta horretaz baliatuko gara. Horrekin batera, gazta nola egiten duten, txakurrekin artaldea zelan domeinatzen duten... Bertsolariekin ere gozatuko dugu.

Aurtengo espedizioan, lekuez eta ohiturez gain, hizkuntzek ere berebiziko garrantzia izango dute.

Hala da, bai. Ameriketan, gazteei kitxua-gaztelania hiztegiak emango dizkiegu, eta Euskal Herrira etortzen direnean, euskara-gaztelania hiztegiak. Horrela lortuko dugu kultura bakoitza hobeto barneratzea, eta hizkuntza horietako berba batzuk, behintzat, ikastea.

Kultura izango da beste ardatz bat.

Bai, garrantzitsua delako kulturak ezagutu eta galtzen dabilena errekuperatzea; tradizio barik, tribu barik, sustrai barik, nazio barik, ez garelako ezer. Alde horretatik, euskal kultura da Europa osoko kultura zaharrena eta ondoen kontserbatzen dena, eta horren berri izan behar dute, bai Ameriketan, eta baita Europan ere.

400 gazte inguruk hartuko dute esku aurtengo Ruta Quetzalen. Zer egin behar da aukeratua izateko?

Madrilgo unibertsitatean dagoeneko 2.000 eskari egin dituzte, eta dagoeneko hasi dira aukeraketak egiten. Aurten, Euskal Herritik pasako garenez, joan den urtean baino euskaldun gehiago izango dira, sei edo zazpi. Aukeraketarako, gazteei eskatzen diegu lan bat egiteko, eta lan horien arabera erabakitzen dugu. Aurten 52 naziotako ordezkariak izango ditugu,

EUSKAL KULTURA

“Euskal kultura da Europako zaharrena eta ondoen kontserbatzen dena. Eta horren berri izan behar dute bai Ameriketan eta baita Europan ere”

TOLERANTZIA ETA ERRESPETUA

“Tolerantzia berba ez zait batere gustatzen. Toleratzen duena bestearen gainetik dago, baina zelanbait onartu egiten du beste horrek egiten duena; errespetatu da egin behar dena”

OÑATIKO EGONALDIA

“Lehenengo geldialdia Gomiztegiko Artzain Eskolan egingo dugu. Eta Oñatiko herrira jaitsita ikusiko dugu kakaoa nola lantzen zuten; unibertsitatean ere izango gara”

GERRA KORRESPONTSALAK

“Lehen, gure ardura nagusia izaten zen jasotako informazio, irudi eta argazkiak zelan bidali. Orain, aurrerapen handiak egin dituzte baina kontrol handiagoa egoten da”



XABIER URTZELAI

Europatik eta Ameriketatik etorritakoak. Kubatik ere etorriko dira, eta horrek bereziki pozten nau.

Zergatik?

Jakina da Kubaren eta Europar Batasunaren arteko harremanak ez direla oso onak. Horregatik, hainbat urtetan ez dugu Kubako ordezkaririk izan. Fidel Castrok, baina, beti izan du oso jarrera ona gure ekimenarekin. Behin, 700 neska-mutikorekin joan ginen berarengana, eta bananbanan agurtu zituen.

Hainbat belaunalditako gazteekin ibili zara hara eta hona. Abenturarako gogoa ez da denborarekin aldatzen, ala?

Ez da aldatzen, eta esango nuke egungo gazteak lehengoak baino askoz ere hobeak direla: arduratsuagoak, ikasteko grina handiagoarekin, bizitza baloratzen dutenak... Egun, baina, gazteak albiste direnean bakarrik azaltzen dira komunikabidetan, eta normalean albiste txarrak izaten dira: borrokak, istiluak... Nik, baina, harreman zuzena daukat egungo gazteekin, eta gu baino hobeak dira, duda barik.

Unibertsitate nomada da zuena.

Hala da, bai, bidaiatzen ikasten direlako gauza gehienak. Horrela ezagutzen dira beste lurraldeak, beste kulturak... Eta, horiek guztiak errespetatzeko beharrezkoa da bidaiatzea, eta errespetatu esan dut, ez toleratu. Tolerantzia berba ez zait batere gustatzen, eta asko erabiltzen dugun berba da. Toleratzen duena bestearen gainetik dago, baina zelanbait onartu egiten du beste horrek egiten duena. Eta, toleratu beharrean, errespetatu da egin behar dena, guztiak gaude-eta maila berean.

Bizitza guztia egin duzu bidaiatzen; geratzen zaizu ezer bisitatzeko?

Ez dut uste, esango nuke mundua txiki geratu zaidala. Lau urte egin nituen Amazonan (1960-1964), Bogotako museo antropologikoarendako lanean. 1967an TVEk Hego Ameriketan izan zuen lehenengo berriemailea izan nintzen, eta gero hasi nintzen munduan zehar kazetari lanak egiten. Errusian argazkilari moduan nenbilela kartzelara sartu ninduten. Palestinarrekin nengoenean israeldarren eraso batean metrailak zauritu ninduen, eta oraindik besoan daukat metraila sartuta. Kongon, militarren arroparekin nenbilen, arropa erosoena zelako; atxilotu egin ninduten, eta soldadua nintzelakoan, heriotza zigorra ezarri zidaten. Eritreako independentziaren berri ere eman nuen... Norberak bere burua ezagutzeko egin behar duen bidaia ere egin dut, zazpi urte egin nituen-eta jesuitekin, hortaz...

Gerra korrespontsal izatea zer den jakinda, egungo berriemaileek ez dute lehengoek bezala lan egiten.

Ez. Lehen, gure ardura nagusia jasotako informazio, irudi eta argazkiak zelan bidali izaten zen. Orain, aurrerapen handiak egin dituzte, baina kontrol handiagoa egoten da. Bistan da, baina, hotel bateko tabernan egonda ezin dela gerra baten gainean informatu. Gu ere kontrolpean izaten gintuzten, baina ihes egiten genuen.

Eman dizkizuten sarien artean, zein aukeratuko zenuke?


Cannes-en *La muerte del Ché Guevara* (1967) lanagatik eman zidatena aukeratuko nuke, berezia izan zen.

Olinpikoa ere izan zara.

Bai, Erroman eta Melbournen disko jaurtiketan lehiatu nintzen, eta urte askoan munduko errekorra izan dut xabalina jaurtiketan (112,30 metro). Xabalina, baina, efektu bereziarekin botatzen nuen, eta nire errekorra balio barik utzi zuten.

Amaitzeko, zelan definituko zenuke zeure burua?

Nomada bat baino ez naiz, zerbait esatearren. Han eta hemen bizi izan naiz, baina ez erreportajeak egiteko edo liburuak idazteko helburua neukalako, horrela bizi gura nuelako, baizik. Hori aukeratu nuen, bizitza estilo bat baino ez da.



XABIER URTZELAI

"Gazteek denbora gehiago egin beharko lukete aiton-amonekin"

Familiarekin ere bidaiatu izan duzu.

Orain dela urte asko, hiru hilabete egin nituen emaztearekin eta semearekin Amazona ibaia txalupa batean jaisten. Oiloak genituen txalupan, eta eurek jartzen zituzten arrautzekin eta arrantzatzen genuenarekin egiten genuen aurrera. Eta gero, *Marco Polo* saioko kapituluak grabatu genituenean ere emaztea nirekin etorri zen. Batera bidaiatzen duen familia ez da banatzen, eta pena da hemen ez direla balore horiek erakusten.

Adibidez, egungo gizartean gazteek denbora gehiago egin beharko lukete aiton-amonekin; hori da egungo kontsumismoari aurre egiteko modu onena, aiton-amoneek beste balore batzuk erakutsiko dizkietelako, beste garai batzuk bizi izan dituzte-eta. Bakuna ederra izango litzatekeela uste dut.

Hego Ameriketan ez dituzte aiton-amonak zaharren etxeetan sartzen, eta ijitoek ere ez dute egiten horrelakorik. Alde horretatik, esango nuke badaukagula zer ikasi. Tamalez, egungo etxeetan telebista baino ez dute ikusten, eta familiakoen artean dagoeneko ez dute berbarik egiten. Alde horretatik, sutondoaren inguruan familia elkartu eta berba egitearen ohitura galdu da, eta hori zelanbait errekuperatu egin beharko litzateke.

Gutunak eta hemeroteka

Udalak herri osoarena behar du

Azken Udal Hauteskundeetan, 2003koetan, legez kanpo egon arren, seiehunetik gora herritarrek Aretxa Herri Plataformaren aldeko botoa eman zuten. Herri plataforma legez kanpo utzi zuen Alderdien Legea txartzat jo dugun guztiok, aintzat hartu beharra daukagu herritar horien guztien iritzia eta baita haiek aukeratutako ordezkaritza ere.

Aipatu legea antidemokratikotzat jotzen duenak, Aretxabaletan Aretxa Herri Plataformak bi zinegotzi izan beharko lituzkeela onartu beharra du eta lege bidegabe horrek Aralarri eta PNVri eman zieten zinegotzi bana ez dagozkiela beraiei. Demokratikoa izan gura duen udalak, herritar guztientzat gobernatu behar du eta ezin du herritar multzo bat kontuan hartu gabe jardun.

Kontu hau guztia, Aralarren Udal taldean hasieratik izan dugu oso garbi eta esandakoaren eta egindakoaren arteko koherentziaz jarduten ahalegindu gara. Hasiera hasieratik egin genion uko legeak emandako laugarren zinegotziari, Aretxa-ri zegokiola pentsatzen genuelako. 2003ko uztailean Gobernu Batzordean sartzeko eskaintza jaso genuenean, bi baldintza jarri genizkion PNVri: bat, gehiengo osoa izango balu bezala ez gobernatzea, atxabaltarren % 35ak baino ez baitzion botoa eman, ezker abertzaleko boto guztiak batuta ostera, % 41. Eta PNVk ezin zuen gobernatu errealitate hori kontuan hartu gabe. Bestea, espainiar legediak legez kanpo utzitako herri plataformak Udalean partehartzeko akordio batera iristea. Lehenengo baldintza berehala onartu zuten eta bigarrenak denbora gehiago beharko zuela argudiatu zuten. Baina alderdien legea antidemokratikotzat jotzen zutela adierazi zuten publikoki eta beraz, koherentziaz, Udalean parte hartzeko modua adosteko borondatea bazegoela pentsatu genuen. 2003ko irailean bertan aurkeztu genien PNV, EB eta Aretxari azken hauen parte hartzea bideratzeko proposamena, "ordezkaritza demokratiko hori, bakoitzari dagokion erantzukizun, erabaki gaitasun eta baliabideez egin ahal izatea ahalbideratuko dion Udal Kontseilua sortzea". Proposamena irekia zen, "Udalak dagokion ordezkaritzaren arabera funtzionatzea bilatzen duen edozein proposamen onartu eta bultzatzeko prest gaude" esan genuen.

Hasiera hartan tentsio handia bizi genuen herrian eta ez zen unerik errazena horrelako proposamen bat adosteak eskatzen duen elkarrizketa eta negoziaketetarako. PNVk ezetza eman zion geure proposamenari eta ez zuen ezer proposatu. Aretxa-k ere ezezkoa eman zuen eta partiduen legean oinarrituta dimisio bidez zerrendak aldatzea proposatzeko taktika nazionalari jarraitu zion, hori egiten zuen alderdia ere legez kanpo uztea besterik ekarriko ez zuena, geure ustez. Garai hartan, gai hori zela eta, Aralarrekook irainak, pintadak, gezurrezko salaketak eta abar jasan behar izan genituen. Inoiz kargurik hartu ez zuen laugarren zinegotziaren izena ikusi behar izan genuen "aulkiak lapurtu" zituztela zioten karteletan eta prentsaurreko bidez ere legez kanporatzea gure mesederako erabiltzea leporatu ziguten, ez zegokion seigarren zinegotzia beretzat hartu zuen PNVrekin batera. Hala eta guztiz, Aretxa-ren parte hartzearen gaia, gutxieneko irizpide etikotzat hartu dugu beti Aralarren, batzuen edota besteen jarreren baitan ez dagoena, udalak herri osoarena izan behar duelako.

Une jakin batean, alkateak Gobernu Batzordean parte hartzea proposatu zion Aretxa-ko ordezkari bati eta baita honek onartu ere; baina arazoaz ahazteko saio bat besterik ez zen izan, agindutako gutxieneko informazio eta baliabiderik ez baitzitzaien eman eta erabakitzeko gaitasunean legeak PNVri emandako abantailari uko egiteko inolako asmo barik.

Horregatik, 2004ko irailean berriro ere, Aralarrek akordiorako beste ahalegin bat egin zuen alderdi guztiekin lehenengo eta Udalbatzan onartzeko mozioa aurkeztuz gero: "urtea amaitu aurretik konponbidea bilatzeko deia luzatzen die gainontzeko alderdi politikoei gizalegezko kontua baita eta are gehiago, Euskal Herriko herriek ezkerreko indar abertzale guztien beharra daukate eta". Baina alkateak ez zuen mozioa udalbatzan eztabaidatzea ere onartu.

Pare bat hilabete beranduago ordea, posible izan zen Aretxa eta Aralarren artean proposamen bat adostea, izan ere, borondate politikoa besterik ez baita behar guztion aldetik. Ondoren, EB ere konponbidea bilatzearen alde agertu zen eta hiru alderdien arteko adostasuna lortu zen, errekonozimendua, parte hartzea, erabaki gaitasuna eta baliabideak izatea ardatz hartuta. PNVrekin ere elkarrizketa eta kontsentsuaren bidetik saiatu ginen, beste behin. Baina 45 egunez astero bilera bat eskatuz jardun ondoren, eta ia bi urtetan PNVren udal taldeak gaia konpontzeko ahalegin bakar bat ere egin ez duela ikusita, proposamena Udalbatzara eramatea beste aukerarik ez genuen. Bertan argazki argigarria ikusi ahal izan genuen: PNV, PP eta PSOE Aretxa-k udalean parte hartzearen aurka. Lege arazoak argudiatu zituzten baina ez dezatela inor engaina: legeak ez du Udala Aretxa-ren parte hartzea bideratzera behartzen, baina badago modua legearen barruan goian aipatutako lau zutabeak bermatzeko. Borondate politikoa besterik ez da behar eta aurkakoa esaten duena ez da egia esaten ari.

Aralarretik argi adierazi gura diegu herritarrei herriaren alde lanean jarraituko dugula, baina nekez jarrai dezakegula ehunka herritar kontuan hartu barik gobernatu gura duen alderdiarekin gobernatzen. Beraz, zer diozue PNVri botoa eman zenioten herritarrek? Zuen Udal taldeak gutxiengoan gobernatzea eta erabakiak PP eta PSOErekin adostea gura duzue ala Aretxa-ren iritzia ere kontuan hartuz funtzionatuko duen udal abertzalea?

ARETXABALETAKO
ARALAR UDAL TALDEA
Aretxabaleta

Abertzaletasuna versus Nazionalismoa?

Lehengo egunean katolikoen buruak, hots Aita Santuak, ustez idatziriko bosgarren liburuko pasarte batzuk irakurri nituen eta baita nahiko gauza bitxiak aurkitu ere.

Memoria eta Identitatea du izena eta, besteak beste, Gaizkia Europako demokrazietan ezkutaturik dagoela dio. Hirugarren Reich-a, esate baterako, demokratikoki hautatua izan zela eta milaka lagun hil zituela oroitarazten digu lasai asko. Antza denez, elizak nazismoarekiko izan zuen oldarkortasun eskasa eta faxismoarekin oro har izan zuen inplikazio eskandalagarria ahaztu egin ditu. Gero, parekidetasun nabaria adieraziz, oraingo demokraziek ere milaka lagun hiltzen dituztela diosku, jaio zein jaio gabeak, abortua, eutanasia, maitasun librea, antisorgailuak eta ezkontza homosexualak legeztatzean. Era berean, lehen Espainia izan zen bezala, orain erreserba espirituala ekialdeko Europa dela ere esaten du. Beraren iritziz, burugabekeria hauen guztien erruduna Descartes gaixoa izan zen, zeren berak esan baitzuen esaldi famatua: "Pentsatzen dut, beraz banaiz". Horra hor bekatu larria: ez omen gara pentsatzen dugulako, baizik eta ez dakit zein jainkok sortu gintuelako.

Geroxeago, gaur hizpide dugun harira, aberri eta nazioez hitz egiten du liburuan. Berezko duen senaz, eta gure harridurarako, abertzaletasuna oso onesgarria dela dio —"Familia bezala, nazioa eta aberria ez dira ordezkagarriak"—. Herri txikiek egitura supranazionalen hedaduraren aurrean erne egon behar dutela eta nazio kontzeptuak gizarte baten nortasun kultural eta historikoa babesten duela ere esaten du Wojtylak, baina —nonbait egon behar beti bainaren bat— norberaren herria maitatzea "ezin da nazionalismora degeneratu". Akabo! Badirudi esan nahi duena ulertzen hasten garela, ezta? Ba, ez pentsa: "Nazionalismoak norberaren nazioaren onura baino ez du bilatzen (...), abertzaletasunak, aldiz, beste nazioei ere eskubide berdinak aitortzen dizkie". Hara! Hau ez nuen espero: abertzaletasunak zeru bidean jartzen gaitu, nazionalismoak, berriz, betiko sura bidali. Kontuz gero EAJko jendeok!

Abertzaletasuna versus Nazionalismoa! Egia esan, ez dut piperrik ere ulertzen. Aurrekoan laizismo eta laikotasunarekin gertatzen zitzaidan bezala, ez dut batere kontraesanik aurkitzen bi kontzeptuon artean. Diferenteak direla bai, badakit, baina ez kontrakoak, askotan nahitanahiezko hurrenkeran doazen kontzeptuak baizik. Hau da, norberaren herria maite badu batek —abertzalea— bere herria beste batek zapaldua dela ikustean beti izango da nazionalista, bere herri hori askaturik eta beste nazioekiko berdintasun mailan ikusi arte.

Izan ere, Wojtyla jainko batek lur planetan duen ordezkaria bada, normaltzat jotzen dut berak esandakoa ezin ulertzea, gizaki xumea bainaiz. Berdin lidake, gainera, ez balitz hainbat elizgizon eta politikarik diskurtso hori euskal nazionalismoa eraso egin eta espainiarren txobinismo inperialistaren aurrean ezikusiarenak egiteko erabiltzen dutelako.

IMANOL ALVAREZ (EHGAM-EKO KIDEA)
'Argia'. 2005-03-20

Aste Santuko oporrak

Aste Santuko oporrak direla-eta, datorren astean ez da GOIENKARIArik argitaratuko da. Hurrengo zenbakia, apirilaren 8an argitaratuko dugu. Ordura arte, ondo pasa oporrak.

GOIENKARIA

Zuzenketa

Joan den asteko GOIENKARIAn, iritzien orri honetan oker bat agertu zen. Hain justu ere, bi gutun pertsona berak sinatuta bezala agertu zen. *Sekulakoa!* izenburukoa eta *Niri gustatu zait* izenburukoa Oskar Elizburuk sinatuta agertu ziren. Lehenengoa bai, lehenengoa hark idatzitakoa zen, Arrasateko Erdu Euskaltegiaren izenean; bigarrena, berriz, Bergarako J. Azkaratek idatzitakoa zen. Barkamenak eskatu nahi dizkiegu biei eta baita zuoi irakurleoi ere.

GOIENKARIA

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Itxaso Berezibar,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ANTZUOLA

Herriko EAJk bereaizandako Ikurrin baten erreplika jaso du

Gaur goizean, eguaztena, jasotzekoak ziren EAJko kideak, Sabino Arana Fundazioko kideen eskutik, eurena izandako ikurrin baten erreplika. Orain dela urtebete inguru Espainiako gerraren gaineko erakusketa egin zuten herrian; hantxe, Antzuolako Emakume Abertzale Batzaren ikurrina jarri zuten. Sabino Arana Fundazioko kideek ikurrin hori ikusi eta balio handikotzat jo zuten; horrela, Euskal Abertzaletasunaren Museora eraman zuten, baina erreplika bat egiteko konpromisoa hartu zuten. /A.I.



KAP PRODUKZIOAK

ARRASATE

Liburu Azoka, Musikaldia eta Oskorri, apirilean Arrasaten

Astelehenean onartu zuen udalak apirilerako kultura programazioa. Aurreratu digutenez, besteak beste, nobedade bi izango dira: liburu azoka eta Musikaldia. Seberren ipiniko dute azoka, apirilaren 8tik 17ra. Zenbait argitaletxek postuak ipiniko dituzte kalean eta liburuak deskontuarekin salduko dituzte. Urteak dira Arrasaten halakorik ez dagoela. Musikaldiari dagokionez, berriz, lehen aldia da. Musika jaialdia antolatu gura dute Udaletik, musikaren zabalkunderako. Hala, apirileko bariku eta zapatuetan kontzertuak izango dira. Klasikoek izango dute indarra, baina denetarik ekarriko dute: piano-jolea, arpa-jolea, perkusio taldea, abesbatzak... Apirileko kultura eskaintza borobiltzeko, Kilometroen barruan, Oskorrik eta Kukubiltxok kontzertua egingo dute, 24an. /U.M.

ARETXABALETA

Eguzkiaren indarra energia elektriko bihurtzeko plakak dituzte kirol etxean

Eguzki plakak jarri dituzte egunotan kirol etxean. Guztira lau instalazio daude kirol etxeko aurrealdean, eta eguzki indarra energia fotovoltaiko birmoldatuko dute. Bost kilowatt ekoitz dezakete egunean, eta urtean 2.000 eta 2.500 kilowatt produzituko dituztela uste dute.

Iaz sinatu zuten Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak eguzki plakak jartzeko hitzarmena. Hori horrela, Kurtzebarri eskolan jarri zituzten lehenengo, eta orain kirol etxean. 36.000 euro ordaindu du Udalak plaka bakoitza. /M.A.

ARAMAIO

Aramaioar bat Arabako txapelketako finalean izango da

Manex Agirre aramaioarrak lortu zuen bertsolari txapelketako finalerako sailkatzea. Joan den zapatuan jokatu zuten bigarren finalaurrekoa, Legution. Hala, lehiaketan parte hartzen dabiltzan bertsolari guztien puntu banaketaren arabera, honako seiek lortu dute finalerako txartela: Iñaki Viñasprek, Oihane Pereak, Asier Otamendik, Zigor Enbeitak, Juan Maria Juaristik eta Manex Agirrek.

Apirilaren 9an jokatuko dute finala, Gasteizen, Jesus Guridi Auditorioan, 17:30ean hasita. /U.M.

OÑATI

Arrasate-Oñatirako kamiseten lehiaketa antolatu du Laixanek

Arrasate-Oñati herri lasterketarako kamiseten diseinu lehiaketa antolatu du Laixanek. Datorren maiatzaren 7an egingo dute aurtengo Arrasate-Oñati eta, duda barik, lehiaketa hau berritasun garrantzitsua izango da. Izan ere, korrikalariei baino gehiago, sortzaileei eragiten die albiste horrek. Laixanek eta Arrasate-Oñati lasterketa antolatzen ibiltzen den taldeak deitu dute, Arrasateko AED elkartearekin eta Berria egunkariaren laguntzarekin.

SARIA ETA OINARRIAK

Euskal Herri osoko biztanleek har dezakete parte lehiaketa horretan, adina kontuan izan gabe. Irabazleak 150 euroko saria eskuratuko du. Apirilaren 15a baino lehen iritsi beharko dute Laixanen egoitzara, Oñatiko Bidebarrieta 18 helbidera, eta hauexek dira lehiaketan parte hartzeko gainerako baldintzak: marrazkiak bi koloretan izan behar du gehienez; horri, 23. Arrasate-Oñati lasterketa eta euskarari lotutako lelo bat gehituko dizkiote; lanek inoiz saritu gabeak izan beharko dute eta gutun-azal itxi batean aurkeztuko dira, lelo batekin; litekeena da saririk ez ematea epaimahaiak hala erabakita; saritutako lanak Laixanen esku geldituko dira eta gainerakoak jaso egingo dituzte.

MAIATZAREN 7AN

Maiatzaren hasieran izaten da beti Arrasate-Oñati herri lasterketa. Aurten, maiatzaren 7an egingo dute antxintxika. /O.E.

Zertzelada

Edonork har dezake parte lehiaketan, eta apirilaren 15a baino lehen entregatu behar dira lanak; 150 euroko saria emango dute

BERGARA

'Bixkai'-ren aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak astelehenean

Iñaki Arietaleanizbeaskoa *Bixkai*-ren aldeko mozioa onartu du udalbatzak. *Bixkai* zapatuan atxilotu zuten Frantzian, Montpelliertik gertu. Udalak elkartasuna adierazten die senideei momentu latz hauetan. Era berean, Bergarako Udala Frantziako zenbait instituziorekin harremanetan jarriko da Iñakiren egoeraren berri jakin eta haren eskubideak errespetatuak izateko eskatuz. EAJ-EAk eta Aralarrek onartu zuten testua. Bergara Aurrerak aurkeztutako mozioan, *Bixkai*-ren askatzea ere eskatzen zuten, kondenaren hiru laurdenak beteta dituelako. Aralarrek bat egin zuen BAren eskaerarekin. /E.M.



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

***Bixkai*-ren aldeko mobilizazioak izan dira egunotan.**

ESKORIATZA

Eskoriatzako mendi sailak antolatuta, eskiatzera joango dira Andorrara

Aste Santuan eskiatzera joango dira Eskoriatzako Kirol Elkarteko mendi sailak antolatuta. Andorra da aukeratu duten tokia. Bihar irtengo dira Eskoriatzatik eta astelehenean itzuliko dira. Grand Valira da aukeratu duten eski-estazioa. Eskiatzera doazenez gain, snowboard egin gura dutenek ere eman dute izena.

APIRILA, EKIMENEZ GAINEZKA

Apirilean hitzaldiak, ikuskizunak eta musika emanaldiak nagusituko dira. Esaterako, Paco Ibañez abeslaria gerturatuko da herrira hilaren 16an. /Z.V.M.

ELGETA

Osatuta dago apirilaren 17rako hauteskunde mahaia

Apirilaren 17an izango dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Elgetan 860 herritarrek eman dezakete botoa eta dagoeneko erabakita dago hauteskunde mahaia zeintzuek osatuko duten. M. Isabel Urkixo izango da mahaiburua, eta Ana M. Arrieta eta Irma Barrenetxea, ordezkoak. Lehenengo mahaikidea Aitor Alberdi izango da, eta ordezkoak, Jesus M. Beristain eta Jose A. Ojanguren. Iratxe Castaño izango da bigarren mahaikidea, eta Koldo Erostarbe eta Susana Jimenez, ordezkoak. /I.A.

GATZAGA

Laurehun bat bisitari jasoko ditu gutxienez Gatz Museoak

Leintz Gatzagara jende asko gerturatzen da urtero jaiegunetan, eta Aste Santuan ere bisitari ugari etortzen dira kanpotik. Astelehenean hasi ziren bisitariak jasotzen Gatz Museoan. Astelehenean ehun ikasle gerturatu ziren, martitzenean berrogeita hamar eta gaur beste horrenbeste. Datorren astean beste berrehun lagunek bisitatuko dute herriko museoa. Bestalde, bihartik astelehenera 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan eskainiko dituzte bisita gidatuak. /Z.V.M.

GOIENKARIA
Eguaztena / 2005eko martxoaren 23a

Felipe Uriarte

Mendi gidaria

“Aconcaguara lehenengo aldiz 1977an joan ginen, eta dagoeneko 35 espedizio egin ditugu”



Aste Santuan Pirinioetan egingo du eski zeharkaldia Mendiak eta Herriak agentziako sortzaile

MIRARI ALTUBE

Mendi tontorrak maite ditu, Aconcagua, Kilimanjaro edo Nepaleko mendilerroa, eta mendirako bideak erakustea du ogibide. Mendiak eta Herriak agentzia sortu zuen orain dela 29 urte, eta makinatxo bat mendi ibilaldi egin ditu. Astean kaleratu dute aurtengo ibilbide katalogoa.

Mendiak eta Herriak ez da ohiko agentzia.

Ez, ez da ohiko agentzia; mendi gidarien elkartea da, eta mendian egiten diren edozein ekintza antolatzen ditugu: eskalada zein eski ikastaroak, mendi ibilaldiak, trekkingak, espedizioak…

Mendian ibiltzeko, esperientzia garrantzitsua da, eta zuen agentziak badu…

Hala da, datorren urtean 30 urte beteko dira elkartea sortu nuela, eta dagoeneko 12 langile gaude, guztiak mendi gidariak. Lanbide ezohikoa da, eta mendian ibiltzeko denboraldia uda partean izaten da, uztail, abuztu eta irailean. Denboraldia bukatzerakoan beste lan batzuk egin behar izaten dituzte askok: eski irakasle edo irakaskuntzan jarduten dute.

Mendi ibilaldiak, ikastaroak… baina zeinendako?

Edozeinendako. Urterako proposamenekin katalogoa kaleratzen dugu udaberri inguruan: aurtengoa asteon atera dugu. Euskal Herrian bertan egin daitezkeen ekintzekin hasi, hau da, hurbil eta errazenetik hasi, eta Everestera joateko aukera eskaintzen dugu. Ibilbide bakoitzeko erreferentzi zabala eta zehatza ematen dugu bertan: data gomendagarriak, eraman beharrekoak… guztia. Webgunean orain arte egindakoaren berri ematen dugu, eta apirilean eguneratzeko asmoa daukagu. Han ere gure eskaintzen berri jasoko duzue.

Munduko bazterrik ezkutuena ere norberaren eskura; eskatu besterik ez dago?

Esandako moduan katalogoan aukera zabala eskaintzen dugu. Toki horietan guztietan gaude egonda eta ezagutzen ditugu agentzian gauden gidariok, batek ez bada beste batek. Hala ere, bateren batek katalogoan ez dagoen mendi ibilaldia gura badu, eskatu besterik ez dauka. Ezagutzen ez dugun tokia bada ondo, informatzen gara lehenengo, eta eskaintza egiten diogu gero.

Zeuok joaten zarete gidari lanak egitera?

Bezeroak agintzen du, eta aukeran ematen diogu. Gure gidarien zerbitzua eskaintzen diegu mendi ibilaldia hartzen dutenei, baina nahiago badute bertako gidarien laguntza, aukeratutako herrialdeko agentziekin jartzen gara harremanetan. Kilimanjaro dela, Nepaleko mendiak direla, guztietan ditugu kontaktuak; ez hori bakarrik, ondo ezagutzen ditugu bertakoak eta esku onetan uzten ditugu. Hori bai, ingelesa edo herrialdeko hizkuntza jakitea komeni izaten da ulertzeko arazorik ez izateko.

Zer eskatzen dute euskaldunek gehien? Nepaleko mendiak, beharbada?

Ez, hori topiko bat besterik ez da. Alpeetan egiten dugu lan handia. Hiru aktibitate antolatzen ditugu hemen: alpinismo asteak, teknikoak izan ohi dira eta Mont Blanc eta Monte Rosa inguruan ibiltzen gara glaziarretan; zazpi eguneko mendi ibilaldiak; eta zeharkaldiak glaziarretan, mendilerroa ezagutzeko aukera izaten dugu glaziarrez glaziar.

Pirinioetan batez ere elur eta izotz gaineko ikastaroak antolatzen ditugu negu partean, eta Nepalen urtero egiten ditugu trekking pare bat. Horiez gain, Afrikara, bai Marokora, bai Kilimanjarora, eta Hego Amerikan dagoen Aconcaguara ere sarri joaten gara. 1977an joan ginen lehenengo aldiz Aconcaguara, eta geroztik urtean hiru espedizio antolatzen ditugu; dagoeneko 35 egin ditugu.

Ezkonbidaiak ere antolatu izan dituzue. Ez da hala?

Bai, hala da. Ez da sarri eskatzen duten zerbait, baina oso bidaia politak antolatu izan ditugu, Kilimanjarora, Perura eta Ekuadorrera, esaterako.

Zein eratako mendizaleak hurreratzen dira zuen agentzia edo elkartera?

Eskaintza zabala egiten dugunez, adin tarte zabala daukagu. Ikastaroetan gazteak izaten ditugu, ikasketak bukatzen dabiltzan edo lanean hasi berri dauden gazteak, 25 urtetik gorakoak. Espedizioetara nagusiagoak etortzen dira, 40 eta 50 urteren bueltakoak, eta trekkingak egitera, 50 urtetik gorakoak.

Guztiak izaten dira euskaldunak?

Gehienak bai, euskaldunekin egiten dugu guk lan. Katalanak ere etorri izan dira, oso leialak dira gainera, eta madrildarren batzuk ere bai, baina oso gutxi.

Munduko mendirik garaienak igotzera gero eta euskaldun gehiago doaz. Modan dago mendia?

Euskal Herrian beti egon da modan, ez da gaurko kontua. Euskaldunak asko maite du mendia, hortaz, lehen, pobreagoak ginenean eta bidaiarik ezin genuenean egin, gure mendietara igotzen ginen. Gero Pirinioak eta Alpeak etorri ziren, eta orain, aberatsagoak gara eta Pakistanera edo Argentinara joaten gara. Hori bai, telebistan eta, oro har, komunikabideetan, lehen baino toki zabalagoa dauka mendiak.

Mendiena garbi dago, baina herriak, kulturak eta herritarrak ezagutzeko aukera izaten duzue?

Bai horixe, izenak berak dio: Mendiak eta Herriak. Gidari euskaldunak gara, eta lehenengo bertako mendiak maite ditugu. Era berean, kanpoko herriak eta kulturak ezagutzeak geurea oraindik gehiago maitatzea eragiten du, eta horregatik, hain zuzen, da hain garrantzitsua kanpoko kulturak eta herriak ezagutzea.

“Baten batek katalogoan agertzen ez den mendi ibilaldia gura badu, eskatu besterik ez dauka”

“Adiskide asko ditut Nepalen eta urtero joaten naiz, baina ez naiz 7.000 metrotik gora igotzen”

29 urtean asko aldatuko ziren kontuak mendian…

Izugarri. Lehenengo aldiz joan ginenean Aconcaguara, 1977ko Eguberria zen. Talde bakarra ginen beheko kanpamenduan, eta beste kanpin dendaren bat edo beste zegoen. Orain 300 denda egoten dira beheko kanpamenduan hiru hilabetean. Mendira igotzeko denboraldian 200 lagun igotzen ziren lehen;orain, 6.000 gara. Hortik, atera kontuak.

Mendira eramateko materiala ere asko aldatu da. Lehen ez geneukan ezer Euskal Herrian, eta orain, oso material ona egiten dute: polar txaketak direla, lo egiteko zakuak direla…



AINTZANE AGIRRE

Felipe Uriartek.

“Mendira igotzeko denboraldian 200 lagun igotzen ziren lehen Aconcaguara; orain, 6.000”

“Euskal gizarteak gehiago maitatu beharko luke mendia, eta aberastasuna dela kontuan hartu”

Zu zeu oraindik joaten zara espedizioetara?

Bai, aurten 17. aldiz igo naiz Aconcaguara. Aste Santuan Pirinioetan eski zeharkaldia egingo dut, eta udan Mont Blanc inguruan ibiliko naiz. Udazkenean, ostera, Nepalera joango naiz. Adiskide asko ditut Nepalen eta urtero gustatzen zait joatea; hori bai, ez naiz 7.000 metrotik gora igotzen.

Gainerako mendietan bezala, Nepalen ere asko aldatuko ziren gauzak, ez?

Bai, noski. Antolakuntzari dagokionean nabaritzen da batez ere. Orain, astebetean antola dezakegu Nepaleko mendiren batera igoera. 1974an, lehen aldiz igo ginenean, Espainiako enbaxadan eskatu behar izan genuen baimena. Erantzuna bost edo sei hilabetera jasotzen zen orduan, eta baimena hiru urte barru igotzeko izaten zen. Hortaz, erabat aldatuta daude kontuak. Agentzia asko daude Nepalen, eta azkar egiten dituzte antolaketa lanak. Hori, baina, Nepalen bakarrik ez; mendi ezagun eta eder gehienetan gertatzen da, bertakoek asko ikasi dute, eta enpresak jarri dituzte. Guk, esaterako, lan handia egiten dugu Internet bidez bai Nepalen, bai Marokon. Lana asko errazten digu Internetek.

Zelan dago mendizaletasuna Euskal Herrian?

Federazioaren inguruan dago antolatuta, eta Euskal Herriko mendi gidarien elkarteak lan gutxi egiten du, baliabiderik ere ez dauka eta. Federazioaz gain, herri gehienetan daude mendi taldeak, eta lan handia egiten dute. Hortaz, oso antolakuntza ona daukagu. Espainian ez dago Euskal Herrian bezalako antolakuntzarik mendiari dagokionean.

Eta gure mendiak zelan daude?

Toki gutxi daukagu Euskal Herrian, eta gizartea garatuz joan den heinean, mendia sufritzen joan da. Mendizale eta mendi gidari batek bi hitzekin esango luke zela dauden gure mendiak: oso izorratuta. Euskal gizarteak gehiago maitatu beharko luke mendia, eta zaindu beharreko aberastasuna dela kontuan hartu. Gainera, administraritzak ez dauka mendiaren gaineko politika garbi eta zorrotzik; ez dauka inolako politikarik. Aizkorriko parke naturalaren gaineko legea aspaldi dauka eginda, baina oraindik izendatu gabe dago; eta zer, eta haize errotak jarri dizkio parkeari mugan. Gainera, mendi gidari eta mendizaleoi sekula ez digute deitu iritzia eskatzeko, eta uste dut badugula zeresanik. Gizarte aberatsari dagokion bezala portatzen hasteko ordua dugu. Izan ere, ekonomia garrantzitsua da aurrera egin dezan herri batek, baina natura ahaztu gabe, gure nortasunaren ezaugarri garrantzitsuena delako.

Pasaiakoa zara zu, baina sarri zatoz Oñati aldera, ez?

Bai, Pasai Donibanekoa naiz, Euskal Herriko herririk politenekoa. Aita marinela nuen, Ternura joaten zen arrantzan, baina mendia ere bertan daukagu. Badira 20 urte Aralarreko harkaizpean bizi naizela, Araitz bailarako Gaintza herrian daukat baserria eta lanlekua. Hala ere, Gaintza eta Oñati artean bizi naiz, neska-laguna daukat eta hemen. Hortaz, Aralartik Aizkorrira ibiltzen naiz kanpoan ez nagoenean.

Eta neska-lagunak egiten dizu lagun mendi ibilaldietan?

Bai, askotan laguntzen dit. Familiakoek eta hurbilekoek sufritzen dute gehien gure lanbidea dela eta, marinelekin gertatzen den bezalaxe. Baina *gustuko tokian aldaparik ez* dio esaerak, eta gu ere hortxe ibiltzen gara hara eta hona.

Kirolabur

DEBAGOIENA/REALEKO NAZIOARTEKO TXAPELKETA

Aste Santuan jokatuko du Realak urtero antolatzen duen Gazte Mailako Nazioarteko Futbol Txapelketa. Egubakoitz Santuan, Gipuzkoako konbinatuak eta Athleticek jokatuko dute Arrasaten (17:00etan, Atxabalpen). Zapatuan, Bergarako Agorrosin futbol zelaian Osasunak eta Tottenham-ek jokatuko dute (17:00etan). Eta domekan, Oñatiko Azkoagain futbol zelaian Real Madril eta Tottenham taldeak izango dira zein baino zein (17:00etan).

DEBAGOIENA/KIROLDEGIEN ORDUTEGIAK

Aste Santuan, ibarreko kiroldegien ordutegietan aldaketak izango dira. Arrasaten, martxoaren 24tik 28ra arte Musakolako kiroldegia 08:30etik 13:30era egongo da irekita. Egun horietan Iturripe eta Uarkape itxita egongo dira. Bergaran, Labegaraieta kiroldegia itxita egongo da Eguen eta Egubakoitz Santuan. Hala, igerilekua itxita egon da astebetez, baina domekan ireki zituen ateak. Eta Oñatiko Zubikoa kiroldegiko igerilekua ere itxita egongo da martxoaren 28ra arte. Garbiketa lanak egiteko itxiko dute kiroldegia. Aretxabaletan, berriz, martxoaren 24tik 27ra arte goizez irekiko dute kiroldegia. Eta astelehenean, martxoak 28, itxita egongo da.

OÑATI/ARRIKRUTZEN ETA ARRATEREN ARTEKO DERBIA

Apirilaren 2an, zapatua, jokatuko dute Arrikrutz Oñatiko Kobak eta Eibarko Arrate taldeek Lehen Nazional Mailan derbia (Zubikoan, 18:00etan). Oñatikoendako gozatzeko moduko norgehiagoka izango da, joan den astean Pulporen kontra lortutako puntuei esker lortu zuten-eta mailari eustea. Geratzen zaizkien hiru norgehiagoketan Oñatikoak ahalik eta goren amaitzeko lehiatuko dira. Momentuz, hainbat egunetako oporraldia izango dute.

ARRASATE/FUTBOLA

Mondrak bihar, eguena, jokatuko du orain dela bi hilabete elurragatik atzeratu zuten partidua. Arrasatekoek Hondarribiaren bisita izango dute Atxabalpen (12:00etan), eta joan den astean Zarautzen gertatutakoa ahazteko eta Aste Santuko oporraldia gusturago hartzeko egingo dute lan. Atzeko postuek dagoeneko ez dute beldurrik ematen, baina pena litzateke txapelketa gora begira jarri barik amaitzea.



BERGARA/GORLAKO TXIRRINDULARITZA IGOERA

Oraingo domekan jokatuko dute Gorlako Txirrindularitza Igoera. Amateur mailako txirrindulari onenek hartuko dute parte eta han izango dira, besteak beste, Oñatiko TKV taldeko Iker Varela eta Unai Arantzabal debagoiendarrak. Iaz Jorge Azantza Caja Ruralekoak irabazi zuen, esprintean. Lasterketa Aste Santuan jokatzen dela kontuan izanda, antolatzaileek boluntarioak behar dituzte bidegurutzeetan egoteko. Horretarako prest daudenek dei egin dezakete telefono honetara eta galdetu Mikel Larrañagarengatik: 619 73 95 07.

ARRASATE/ASTE SANTUKO DOKE TXAPELKETA

Joan den domekan gaztetxoak ibili ziren Kondekuan doke txapelketan, eta Egubakoitz Santuan nagusien txanda izango da. Arrasateko elkarte gastronomikoen arteko lehia 10:00etan hasiko da, eta irabazleek Udaleko ordezkarien kontra jokatuko dute. Joan den astean Txalapartako Aitor Azkaratek eta Ander Aritzaletak irabazi zuten.



Añai erretegia

Nardeaga 32 / ARAMAIO
945 44 51 01

Eskaintza
- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

Berezitasunak
- Arraina eta okela parrillan
- Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik





Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

Eskaintza
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita




Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza
- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

Eguneko menua eta karta



Eguzkitza erretegia

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak

Arane Erreka 30 / BERGARA
943 76 97 01

Berezitasunak
- Behi txuleta
- Bakailaua

Martitzenetan itxita



Gure Ametsa jatetxea

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza
- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita



Larrinetxe jatetxea

Udala auzoa / ARRASATE/ 943 79 22 15
www.larrinetxe.com

Eskaintza
- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

Berezitasunak
- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

Martitzenetan itxita



Unzueta jatetxea

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik



Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa 1 / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

Goienka 2a

Egubakoitza / 2005eko martxoaren 23a

Kultura eta aisialdia

Martxoaren 23tik apirilaren 1era



AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO IRUDIA: GAZTEMUGI

GOIENKARIA
Eguaztena / 2005eko martxoaren 23a

GAZTERIA/ GAZTE MUGIMENDUAN LAN EGITEN DUTENEN TOPAKETA

Gazte Mugi asteburuan Markinan

EZTABAIDA TALDEAK, HITZALDIAK ETA TAILERRAK AUKERAN EUSKAL MUGIMENDUARI EKARPENAK EGITERA JOANGO DIRENEK

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Markinan elkartuko dira Euskal Herriko gazteak asteburuan. Lanera joango dira, gizarteko hainbat alorri alternatiba bilatu gura diete. Gazte mugimenduan lanean diharduenak bilduko dira. Baina guztia ez da lana izango, jaia ere egingo dute-eta Bizkai alde horretan.

Martxoaren 25etik 27ra Markina Euskal Herriko gazteen topaleku izango da. Bertan, Gazte Mugi ekimena egingo dute. Gazteei interesatzen zaizkien gaiak landuz, gizarteko hainbat esparruren alternatibak sortu gura dituzte.

Euskal Herriko gaztetxe eta gazte asanbladen koordinadoratik sortutako ideia da Gazte Mugi. Hala ere, bertara joateko deia ez diete gazte asanbladetako kideei bakarrik egin. Izaera zabala eduki gura du ekimenak, eta hala, "antolatu barik Euskal Herri berri baten alde lan egiten diharduten guztiei egin diegu deia", azaldu dute Gazte Mugiko antolatzaileek.

Hiru egunetan lantaldeak osatu eta eztabaida-guneetan hainbat gai landuko dituzte; askotariko hitzaldi eta tailerretan esku hartzeko aukera izango dute.



GOIENKARIA

Fjord taldeak domeka iluntzean joko du beste lau talderekin batera.

EZTABAIDA TALDEAK

Egubakoitz eguerdian lantaldeak egingo dituzte. Horietan, gizarteko zenbait egoeraren azterketa egin eta eraiki beharreko alternatibez egingo dute berba. Egubakoitz eta zapatuan nork bere ekarpena egingo dio interesatzen zaion gaiari. Bost eztabaida talde nagusi egingo dituzte antolatzaileek. Lehenengoak kultura eta balio berriei buruz eztabaidatuko du. Gaztetxeak, drogak, feminismoa eta sexualitatea izango dituzte mintzagai, besteak beste.

Bestalde, bigarren taldeak gazte bizitza eta hizkuntza izango ditu hizpide. Euskarak gazteen bizitzan zer-nolako papera duen aztertuko dute, esaterako, lantalde horretan biltzen direnek. Hirugarren taldeak komunikazioa eta komunikabideen gaiaren inguruan hitz egingo du; harreman sareei eta gazte asanblada eta gaztetxeen sare birtualei buruz, adibidez.

Laugarren taldeak nekazaritza eta arrantza eta etxebizitza eskubidearen aldeko borrokari buruz eztabaidatuko du, beste hainbat gairen artean. Bizi baldintza sozioekonomikoak izango dituzte hizpide, beraz. Azken taldeak hezkuntza prozesua hartuko du ahotan; euskara, ikasteko baldintzak eta demokraziari buruzko euren iritziak emango dituzte parte-hartzaileek.

Egubakoitz arratsaldean eta zapatu goizean lantaldeak elkartu, eztabaidatu eta alternatibak bilatu ondoren, domeka goizean talde bakoitzak ateratako ondorioak zeintzuk diren jasoko dituzte dinamizatzaileek.

Domekan, jai giroa

Lanera joango dira Euskal Herriko gazteak Markinara asteburu honetan. Egitarauak egunero gauza desberdinak eskaini arren, badira zenbait gai egunero eskura egongo direnak: gazte artisten erakusketa, herri azoka, rokodromoa, Herriko Plazan jarriko dituzten txosnak...

Bestalde, domekan jai giroa nagusituko da herrian. Izan ere, eztabaidetan jasotako ondorioak zeintzuk diren aztertu ondoren, sagardotegia irekiko dute. Ondoren, olinpiadak egingo dituzte, 17:30ean. Eta 18:00etatik aurrera, Markinako bost kaletan 30 bat musika taldek emanaldia egingo dute. Eszenatokirik gabe txandaka joko dute, eta hala, musika doinuek jantziko dituzte kaleak.

Gauerako jaialdi interaktiboa prestatu dute eta bost talde arituko dira: Surfin Kaos, Tuboskapi, Skunk, Fjord eta Raimundo Amador izango dira gaueko protagonistak. 21:30ean hasiko da eta 12 euro ordaindu behar da sarrera aurrez erosiz gero; 15 euro Markinan erosiz gero. Amaitzeko, DJ emanaldia egongo da.

HARITZ ZUBIATE/ ARRASATEKO GAZTE ASANBLADAKO KIDEA

"Euskal Herriko gazte guztiak daude gonbidatuta"

Egubakoitzean aurkeztu zuten Arrasaten Gazte Mugi ekimena. Haritz Zubiate Gazte Asanbladako kidea da eta ekimenaren inguruan egin dugu berba berarekin. Markinan egongo da hiru egunetan eta ibarretik jende asko joatea espero duela eman du aditzera.

Nork har dezake parte Gazte Mugin?

Euskal Herriko gazte guztiei zuzendutako ekimena da. Euskal Herriko gazte mugimenduari ekarpenak egin diezaiokeen edonork har dezake parte. Izan daitezke gazte mugimenduko eragile lanetan dabiltzanak, baina baita modu ez antolatuan lan egiten dutenak ere.

Zenbat pertsonarentzako tokia dago Markinan?

Gazte Mugin 1.500 pertsonaren parte-hartzea aurreikusi da. Hala ere, gutxiago elkartuko garela uste dut.

Zer egin behar da parte hartzeko?

Eztabaidetan parte hartzeko ,gai bat aukeratu eta izena eman behar da. Hiru egunetan joan beharko dute eztabaidetara. Aurrez eman daiteke izena, baina baita Markinan bertan ere. Hitzaldi eta tailerretara joateko, hala ere, ez da izenik eman behar.


Zein desberdintasun dago lehen antolatzen ziren gazte topaguneen eta oraingo Gazte Mugi ekimenaren artean?

Lehen ondo pasatzera joaten zen jendea topaguneetara. Orain, baina, lan egiteko gunea sortu dugu. Hala ere, azken egunean jai giroa nagusituko da Markinan.

Zer nabarmenduko zenuke egitarautik?

Eguneroko eztabaida-guneak interesgarriak izango dira. Nork bere ekarpena egin eta azken egunean, domekan, lantalde bakoitzeko ondorioak jakiteko aukera izango dugu.

Bestalde, azken egunean rock maratoia egingo dute Markinako bost kaletan. Hogeita hamar bat taldek esku hartuko dute bertan eta eszenatokirik gabe joko dute.



Markinara joateko asmoa du Haritzek.

Kaleak girotzeko modu bitxia dela iruditzen zait.

Nola animatu joan edo ez erabakitzen dabilen gazte bat?

Giro polita egongo dela esango nioke. Lan egiteko gogoz dauden pertsonak gerturatuko dira Markinara egubakoitzetik domekara. Lo egiteko ez da kanpin dendarik eraman behar, kiroldegia utzi baitigute horretarako. Ekimen gehienak karpetan egingo dira, beraz, eguraldi txarra eginez gero ere, euritik babestuta egongo gara.

Bakoitzak interesa duen gaiaren gaineko ekarpena egin dezake eztabaidetan esku hartuz, eta beste Euskal Herri bat eraikitzeko oinarriak jar ditzake.

TURISMOA/ ASTE SANTUKO OPORRAK DEBAGOIENEAN

Etxeko eskaintza, erosoa eta ederra

OPORRALDI LABURRAK AUKERA PAREGABEA DIRA LOTSA KENDU ETA GURE HERRIETAKO ONDARE PAREGABEA DESKUBRITZEKO

LEIRE KORTABARRIA

Jakina da, fenomeno orokorra da eta egiaztatuta dago: jendeak ez du bere bizilekua behar bezain ondo ezagutzen, eta beti dago zer ikasi eta zer ikusi; edo, hala ez bada, zer berrikusi eta zerekin gozatu. Oporraldi laburrak aukerako garaia dira etxeko altxor-kutxa zabaltzeko.

Lurralde eta herri guztiek dute ikustea merezi duen zerbait, baina jende askori lotsa ematen dio onartzeak bere herrian turismoa egiteko asmoa duela. Opor garai labur bat une ezin hobea da lotsa hori astindu eta debagoiendarrok Debagoienean bertan turista izateko. Izan ere, aukerak hamaika daude, eta hori baino eskaintza merke, eroso eta lasaiagorik nekez azalduko da.

Aukera guztien berri emateko, udal turismo zerbitzuak indartu egin dira. Esaterako, Bergarako turismo bulegoak goizez eta arratsaldez zabalduko ditu ateak Eguen eta Egubakoitz Santuan; gainerako egunetan, goizez bakarrik. Oñatiko eta Leintz Gatzagako bulegoak ere goizez eta arratsaldez egongo dira zabalik hilaren 28ra bitartean, gutxienez. Arantzazun ere informazio-gunea ipiniko du Mankomunitateak, hura ere goiz eta arratsaldeko zerbitzuarekin. Azkenik, Oñatiko unibertsitatean aparteko informazio-gunea ipiniko dute. Iaz ipini zuten hori lehenengoz, eta arrakasta handia izan zuen. Aurten ere hala izatea espero dute Udal Turismo arduradunek.





GOIENKARIA

Hainbat estiloko turismoa egin daiteke Debagoienean: adibidez, herriko monumentuak ikusi edo museoak bisitatu.

Eskaintza handiena Oñatin dago: hain zuzen, bi bisita gidaturen artean aukeratzeko modua egongo da. Bergarako hiribilduan eta Arantzazun, ibilbide bana egiteko aukera dago.

Bestalde, museoak gustuko dituztenek ere badute non aukeratu Debagoienetik irten gabe. Hain zuzen, Leintz Gatzagako gatz museoan bisita gidatuak antolatzen dituzte. Hilaren 24tik 28ra bitartean, 12:00etan, euskaraz, eta 13:00etan, gaztelaniaz, eskaintzen dituzte.

NATURA ESKAINTZA, INDARTUTA

Natura da Debagoieneko beste eskaintza handia, azken urteotan asko indartu dena, gainera. Aukera aberastasunaren berri izateko, jakin ezazue antolatutako 22 ibilbide daudela aukeran, PR direlakoak, eta horien gaineko informazioa turismo bulegoetan eta Turismo Ekintzetarako Zentroan (Arrasateko Nafarroa etorbidean) dagoela. Zailtasun maila eta iraupen guztietako ibilbideak daude, eta Debagoieneko herri bakoitzean dago gutxienez bat.

Ibilbidearen mapaz gain, bidean topatzekoak diren leku interesgarrien gaineko argibideak dakartza esku-orri bakoitzak. Hortaz, natura ondareaz gain, Debagoieneko historiari gainbegiratua ere egiten diete ibilbideek: esaterako, Bergarako Tumuluen Xenda delako ibilbidean, Gorla ikusi eta interes arkeologiko handiko gune batzuk ikusiko ditugu. Aitzorrotz, Urkuluko urtegia, Vasco-Navarro trenbidearen bidea, Eskoriatzako elizateak… dira aukera batzuk.

Horiez gain, Debagoiena barne duten ibilaldiak ere badaude. Klasiko bihurtu da, adibidez, Hiru Tenpluen Ibilbidea, Arantzazu hartzen duena.

INTERNETEZ ERE BAI

Interneten badago turismo informazioa kontsultatzeko modua: hain zuzen, *www.turismodebagoiena.com* Mankomunitatearen turismo webgunean.

Horrez gain, xehetasun eta argazki ugari batzen dituzten informazio esku-orriak daude turismo bulegoetan: herrien planoak, ibilbideen gidak, museoen gaineko informazioa edo ibarreko zerbitzu gida, besteak beste.

Eguraldiak ere eragin


Debagoienaren turismo erakarpena finkatuta dago. Oñatiko turismo arduradunek dioskute aurtengo "aurreikuspen onak" dituztela. Iaz, adibidez, 371 bisitari jaso zituzten oporraldiko 12 egunetan, gehienak Unibertsitateko informazio gunean. Hala ere, eguraldiak eragiten du kopuruan: 2003an giro bikaina egin zuen eta 483 bisitari izan ziren.

Aste Santukoa barne turismoa izaten da, Euskal Herrikoa. Hala diote baita Bergarako turismo arduradunek: euskaldunak ziren iazko Aste Santuko denboraldian, hil osoan, hara joan ziren 601 bisitarietatik gehienak. Bai Oñatin, bai Bergaran ere, Espainiako bisitari gehienak Kataluniatik datoz. Kanpokoak %10 inguru izaten dira.

Oñatiko sei postal berri salgai ipini dituzte

Oñatiko sei postal berri dago aukeran. Joan den asteaz geroztik gehitu ditu Oñatiko Turismo Bulegoak bere postal eskaintzara, eta hantxe dituzte salgai, 0,45 euroko prezioan.

Turismo bulegoko arduradunen esanetan, jendea aspalditik zebilen postal berri eskean, eta horregatik erabaki dute hauek egitea. Agustin Goenaga argazkilariaren irudiekin egin dituzte. Hauxe dio Izaskun Ormazabal turismo bulegoko arduradunak: "Orain arte gehiegi landuta ez zeuden lekuak aukeratu ditugu: monumentuetako barrualdeak, alegia, Unibertsitatea, parrokia eta Bidaurretakoak batik bat".



Artelan bikainenek ere 'makillajea' behar dute

Artelan onenek ere, begi bistan jarraitzeko, noizbehinka ukitutxo bat behar izaten dute, eta hori izan da ibarreko zenbait lanen kasua. Aste Santu honetan, horietako bat bisitatzeko parada izango da: Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitateko kaperako erretaula, hain zuzen ere.

Erretaula horren zaharberritze lanek denbora luzea eraman zuten. Behin bukatuta, joan den abenduaren 1ean inauguratu zuten. Euskal Berpizkunde garaiko eraikin garrantzitsuenetariko bat da unibertsitatea, eta barruko kaperako erretaula Berpizkundeko eskultura multzo onenetariko bat da. Sormen lana Pierres Picart eskultore-apaintzaile frantsesari agindu zioten 1544. urtean. Horren gaineko azalpen gehiago emango dituzte bisita gidatuetan, eta horien berri emateko, Unibertsitate inguruan informazio gunea ipiniko dute egunotan.



Ez da hori eraberritu duten Debagoieneko artelan bakarra. Bergarako Aroztegi jauregiko ate nagusia zortzi hilean Donostian izan dute zaharberritzen. XVI. mendeko lehen erdialdeko lana da, oso baliotsua. Orain, jauregi barruan ipini dute eta hantxe izango da ikusteko aukera; hori bai, maiatzetik aurrera.

GOIENKARIA
Eguaztena / 2005eko martxoaren 23a

Mar. 23-Api. 1

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

DEIAK

ARETXABALETA

► **Etxebizitza sozialetan** izena emateko azken eguna dute elbarriek gaur, eguaztena. Sei etxebizitza dituzte emateko. Baldintzak dira Aretxabaletan erroldatuta egotea; 9.000-48.080 euro bitarteko diru-sarrerak edukitzea eta etxebizitzarik ez izatea. Argibideak, udaletxean.

► **Bakearen gaineko hausnarketa** deitu du Leintz Bailarako Pastoral Barrutiak biharko, eguena, parrokiako lokaletan, 16:00-17:30 ordutegian. Asier Arteaga gazteak gidatuko du berbaldia. Geideak Bilboko elizbarrutiko gazte mugimenduko kide ohi eta Elkarriko kidea da bera. Deia herri osoarendako da, batez ere Aretxabaleta eta Eskoriatzako pastoralgileendako.

► **Emakumeendako autoestimu tailerra** antolatu du Udal Prebentzio Sailak. Apirilaren 7tik ekainaren 9ra bitartean izango da. Bi orduko saioak egingo dituzte eguen goizetan. Izena emateko, deitu 943 71 18 62 telefonora.

► **EAJ-EA koalizioak** jakinarazten du legebiltzarrerako hauteskundeetan posta bidez bozkatu gura dutenei laguntzeko gertu daudela. Batzokian egongo dira astelehenetik eguaztenera bitartean, 18:00-20:00. Honako telefonoetara ere dei dezakezue: 943 79 57 43 edo 943 79 84 85. Botoa tramitatzeko azken eguna apirilaren 7a duzue.

ARRASATE

► **Monterron parkea** itxita egongo da gaur, eguaztena, hilak 23. Anfiteatroa inguratzen duen bidea konpontzeko egon da egunotan itxita.

► **Txatxilipurdi elkarteak** San Miguel de Aras (Kantabria) herriko aterpetxe baten egonaldia antolatu du. Apirilaren 22tik 24ra bitartean egongo dira han. DBHkoei zuzendutako ekintza da, eta izenematea zabalik dago apirilaren 1era bitartean Txatxilipurdiren egoitzan. 75 euro da. Argibide gehiagorako, deitu 943 77 17 39 telefonora.

► **Kirol instalazioek** ordutegi berezia izango dute datozen egunotan. Hilaren 24tik 28ra bitartean, Musakola kiroldegia 08:30-13:30 ordutegian egongo da zabalik; igerilekuak, 09:00-13:00. Iturripe itxita egongo da, eta Uarkape frontoia ere bai.

► **Ttakun txalaparta taldeak** webgunea estreinatu du, *www.ttakun-txalaparta.org* helbidean. Taldearen gaineko informazioa eta txalapartaren inguruko azalpenak batu dituzte, besteak beste.

► **34an jaiotakoek** kinto batzarra egingo dute apirilaren 2an. Izena emateko, 10 euro aurreratu behar dira Bengoa tabernan martxoaren 30 baino lehen.

BERGARA

► **Gorlako txirrindulari igoera** antolatzeko laguntza deia egiten dute antolatzaileek, eta gaur, eguaztena, da horretarako azken eguna. Hain zuzen, bidegurutzetan banderatxoekin egoteko jendea behar dute. Interesa dutenek 619 73 95 07 zenbakira deitu behar dute. Banderatxoak gaur, eguaztena, banatuko dituzte San Martin plazako egoitzan, 20:00etan.

DEBAGOIENA

► **Udaleku irekietan** begirale eta zuzendariak behar dituzte Aretxabaleta eta Eskoriatzako udalek. Baldintzak dira 16 urte beteta izatea eta euskaraz jakitea. Curriculumak apirilaren 1a baino lehen bidali behar dira dagokion herriko udaletxe edo kultura etxera. Arrasaten, Txatxilipurdi elkarteak ere udalekuetarako begiraleak behar ditu. Baldintzak dira gutxienez 18 urte izatea, euskara menperatzea eta euren formazio saioetara joatea. Izena emateko mugaeguna da apirilaren 18a.

► **Gorputz edo zentzumen gutxitasunak** dituztenendako oporraldiak antolatu ditu Elkartu gutxituen elkarteak. Maiatzetik urrira bitartean, zortzi irteera antolatu dituzte, Espainiako kostaldera eta Paris eta Herbehereetara. Argibideetarako, deitu 943 31 67 70 telefonora.

ELGETA

► **Ardo-dastatzea** izango da hilaren 31n, eguena, Espaloia kafe antzokian, 20:00etan. Valsanzo sotoak eskainiko du ardoa.

OÑATI

► **Igerilekuak itxita egongo dira** hilaren 28ra bitartean. Osakidetzaren arauak jarraituz, ura aldatu, garbitu eta zenbait berritze lan egingo dituzte.

► **Bertso afaria** izango da apirilaren 1ean, egubakoitza, Larrain Gain elkartean. Joxe Agirre eta Jesus Mari Irazu bertsolariak egongo dira. Elkartearen 25. urteurrena ospatzeko ekitaldien barne antolatu dute.

► **Arantzazuk Ameriketan** izan duen eraginaren gaineko *Las huellas de Aránzazu en América* izeneko liburua kaleratu du Eusko Ikaskuntzak. Salgai dago Arantzazun, Oñatiko Turismo Bulegoan eta *www.euskoikaskuntza.org* webgunean, 8 eurotan. Arantzazuko Amabirjinari Ameriketan izan dioten debozioa ikertzen du liburuak. Hango kofradiak, tenpluak, irudia, toponimia eta beste hainbat aztarna ikertu dituzte horretarako.

► **Kzgunea itxi egingo dute** hilaren 29ra bitartean, Aste Santuko oporrak direla eta.

► **1981ean jaiotakoek** kinto bazkaria egingo dute apirilaren 30ean, eta izenematea apirilaren 18a baino lehen egin behar da. Horretarako, sartu 30 euro Euskadiko Kutxako honako kontuan: 3035 0002 13 0020042837.

► **1961eko irailetik 1962 urte bukaerara bitartean** jaiotakoek kinto afaria egingo dute apirilaren 2an. Izena emateko, martxoaren 27a baino lehen deitu behar duzue honako telefonoetara: 943 78 33 22 (Marilu) edo 653 73 08 03 (Aran). Hildako kintoen aldeko meza izango da Agustindarren elizan (19:30).

IKASTAROAK

ARRASATE

► **Langabeendako ikastaroak** antolatu ditu INEMek. Norbere enplegurako enpresak; soldatak eta giza segurantzak kudeatzea; erabiltzaile mailako informatika; eta web orrien diseinua: horiek dira ikastaroon gaiak. Argibide gehiago, INEMen bulegoan.

► **Gazteendako magia eta sabeldantza ikastaroak** antolatu ditu Gazte Informazio Bulegoak. Apirilean hasiko dira, eta oraindik zenbait lagunendako lekua badago. Matrikula 20 euro da, 12 ikasle edo langabeendako.

BERGARA

► **Klown ikastaroak** antolatu ditu Oihulari Klown taldeak egunotarako. Hasiera mailakoa gaur, eguaztena, hasiko da, eta Egubakoitz Santuan bukatu, sakontze mailakoa egubakoitzean hasi eta domekan, hilak 27, bukatuko da. Klown abileziak ikastea eta nork bere burua hobeto ezagutzea dira helburuak. Izenematea zabalik dago 607 20 45 03 telefono zenbakian.

► **Argazkigintza ikastaroa** antolatu dute Udalak eta Pol-Pol argazki taldeak, apirilean hasteko. 40 euro da, 25 ikasle eta langabeendako. Argibide gehiagorako, jo kultura etxera.

OÑATI

► **Oñatiko Institutuak doako ikastaroak** antolatu ditu, eta izena emateko azken eguna duzue gaur, eguaztena. Hain zuzen, tornu konbentzional eta CNC programazio eta prestaketa ikastaroak dira. Argibideetarako, deitu 943 78 21 50 telefonora edo jo *www.oinati.net* webgunera.

ERAKUSKETAK

BERGARA

► **Unai Azkarate margolariak** erakusketa du zabalik Nahikari tabernan martxo bukaera arte.

MUSIKA

BERGARA

► **Cradle of Filth** taldeak kontzertua eskainiko du etzi, egubakoitza, Jam aretoan, 20:00etan. Moonspell eta The Haunted taldeek ere joko dute. 28 euro da sarrera. Aldez aurreko salmentan, honako lekuetan daude salgai: txartelak: Jam aretoan eta Etxagi tabernan, Bergaran, eta Lazkano musika dendan, Arrasaten.

OSPAKIZUNAK

ARRASATE

► **Aste Santuko ospakizunak** antolatu ditu elizbarrutiak Eguen, Egubakoitz eta Zapatu Santurako. Hain zuzen, herriko komentu eta elizatan ospakizunak, Gurutz Bidea, adiskidetze sakramentua eta Pazko Gaubeila antolatu dituzte, besteak beste.



► DEIAK

SAHARAKO UMEAK HARTZEKO IZENEMATEA ZABALIK DAGO IBARREAN

Indarberritu egin dute aurten Saharako umeak oporretarako ekartzeko egitasmoa, Oporrak Bakean delakoa. Izan ere, aurten, lehenengo aldiz, Debagoieneko Nubi Sahararen lagunen elkarteak eta zenbait udalek lankidetza akordioa egin dute, eta udal horiek diruz lagunduko dute umeon etortzea eta hemen egingo dituzten ekintzak. Saharako umeak uztail eta abuzturako etorriko dira, eta horiek hartu gura dituzten familiek izena eman dezakete Antzuola, Oñati, Aretxabaleta edo Arrasateko Udal Ongizate Sailean edo Nubi elkartera deituta, 685 72 48 16 zenbakira. Epea zabalik dago martxoaren 31ra bitartean. Bergarako Udalak, bestalde, dirulaguntzak ematen dizkie urtero umeren bat ekartzen duten familiei.

Non: Debagoieneko zenbait udaletan eta Nubi elkartearengana jota. **Epea:** martxo bukaera arte.

BERGARA

► **Elizamendiko Andra Mari** jaiak ospatuko dituzte etzi, egubakoitza, Mainddao-Angiozar auzoan.

ESKORIATZA

► **Bakarkako Adiskidetza Sakramentua** egingo dute bihar, eguena, parrokian, 11:00-12:00.

LEHIAKETAK

BERGARA

► **21. Bergara Hiria argazki lehiaketa** deitu dute. 30 x 40 cm-ko kartulinatan aurkeztu behar dira argazkiak; atzealdean, egilearen datuak. Zuri-beltzeko eta koloretako argazkiak hartuko dituzte, gehienez ere bakoitzeko lau. Teknika eta prozedura libreak dira. Bergarako Udaletxera eraman behar dira, edo posta zertifikatuz kultura etxera bidali maiatzaren 4a baino lehen. 440 euro banatuko dituzte lau saritan. Argibideak, 943 76 30 90 telefonoan.

► **Mendekoste jaietako programaren azala** aukeratzeko lehiaketa deitu du udalak. Bergaran bizi edo erroldatuta dagoen edozeinek parte har dezake. Horretarako, 46 x 61 cm-ko kartel bertikalak aurkeztu behar dira. Nahitaezko testua da *Pentekoste Jaiak 2005 Bergara*. Irabazleak 600 euro sakelaratuko ditu.

DEBAGOIENA

► **Gomendatzen Dizut… lehiaketa** deitu dute Arrasate eta Bergarako gazte informazio bulegoek. Aste Santuko oporretarako gomendioak batu gura dituzte, eta apirilaren 22a da horretarako mugaeguna. Gomendioak egiten dituzten guztien artean, landetxe baten egonaldia zozkatuko dute. Internetez ere parte har daiteke *www.bergara.es/Udala/Antolaketa/Kultura/Info_gazte* edo *www.arrasate-mondragon.org/News/1109234906* webguneetan.

OÑATI

